

2008ko urtarrilaren 17a • XXVIII. urtea
www.ttipi.net



Leitzako bortz gazte Saharan izan dira

03

Abendu hasieran Saharako Tindufeko kanpamenduetan izan ziren, udan etxean jasotako hango umeak eta euren familiak bisitatzeko. Euretako batzuekin egon gara.



58 urterekin Mindegiak marka berria egin du

39

Bere buruari paratutako erronkak betetz segitzen du Mikel Mindegiak. Azkena Donezteben Errege Egunean egindakoa, kanako lau enbor ordubetea ebaki zituen.

IGOR PORTU ETA MATTIN SARASOLA ESPETXERATUAK

10

Bi lesakarrekin gertatu denak torturaren kontrako aldarria indartu du



“Acércate @ las TIC” programa
65 urtetik gorakoentzat eta edozein adinetako emakumeentzat

IKASI DOHAINIK ORDENAGAILUA ERABILTZEN ETA INTERNETEN NABIGATZEN



Ikastaro eta tailerrak, Nafarroako
150 herri baino gehiagotan

Información e inscripciones en tu ayuntamiento y en las siguientes entidades:

IPARRALDEKO EREMUA



Marcial Celayeta etorb., 75, AA3
nabea 31014 Pamplona/Trufa
Tel: 948 20 66 97
telecentro@cederna.es

IRUÑENRIA



Lains, 6
31002 Pamplona/Trufa
Tel: 948.20.63.52
tsuaviana@crucija.es

ERRIBERA



Aberto Peláez, 9
31500 Tudera
Tel: 948 086044
info@fundaciondedalo.org

ERRIBERA



Yehuda Ha-Levy plaza
31500 Tudera
Tel: 948 403 093
formacionyempleo@conocceoder.es

IRUÑENRIA



Las Provincias, 6, behea
31014 Pamplona/Trufa
Tel: 948 136020
acertanaliste@gaztetzen.org

LIZARVALDEA





Antso Azkarra, 6 - behea
31200 Lizama
Tel: 948 55 65 37
asociacion.feeder@montejuna.es

ERDIALDEA



Rúa Romana 5
31300 Erribari
Tel: 948 74 07 38
zonamedia@wariadco.es

Programa financiado y con la colaboración de:



DATUAK...

- Abendu hasieran Leitzako bost gazte Saharan izan ziren, udan etxean jasotako hango umeak eta euren familiak bisitatzeko.
- Han izan zirenen artean daude Lorea, Maia eta Jon Arantzeta anai-arrebak. Saharako Tinduf kanpamentuan egon ziren, Aaiungo probintzian, Dchera herrian.
- Esperientzia ona izan dela kontatu digute, baina baita sahararren egoera krudela dela eta 30 urtetan baztertuak daudela nabarmendu ere.

Lorea, Maia eta Jon ARANTZETA *Leitzako gazteak*

UTZITAKO ARGAZKIA

«Sahararrak leku irekian bizi dira baina hura kartzela bat da»

Gurutze PIKABEA

Nolatan erabaki zenuten Saharara joatea?

Leitzara aurten hiru ume etorri ziren. Gure etxera Jatri izeneko 12 urteko mutikoa etorri zen, aurten hirugarren urtez jarraian. Eta abenduan gu hiru anai-anarebak joan ginen Jatri eta bere familia bisitatzera. Espainiar estatuko Sahararren aldeko taldeek urtero bi aldiz antolatzen duen ekimena da, eta Nafarroako hegazkina ez zenez behar beste bete gu Zaragozakoe-kin joan ginen abenduaren 4tik 10era. Irati eta Aratz beste bi leitzarrak, berri, Madrilekoekin joan ziren. Zaragozatic Oranera (Argelia) ordu eta bost minutu inguruz joan ginen, eta handik Tindufera.

Nola bizi dira Tindufen?

Hango bitzita *inhumanoa* edo krudela da. Oso ondo pasatu genituen egunak, baina panorama beltza da. Euren barruko bizitasuna hori dute, jaiak antolatzen saiatzen dira, are gehiago kanpokoak joatean... Umeak edozein momentutan dantzan eta kantuan ari dira, alaiak eta abegitsuak dira baina bizi baldintzak penagarriak dira. Ez du-

«Egoera penagarria da eta ez dago eskubiderik. Bertara joan eta ez dela ezer pasatzen ematen du, baina militarrez eta minaz inguraturik daude, eta edozein unetan lehertu daitezke».


te ur korronterik, ez elektrizitaterik, ez saneamenturik, jatekoa justu-justuan... Kanpotik heltzen zaienarekin bizi dira. **Nolako harrera egin zizueten?**

Lehen unetik oso ona, gainera Jatri gurean izaten dela kontuan hartuz... Lau anai-arreba dira 12, 14, 20 eta 29 urtekoak eta denak kanpoan egondakoak, ikasten, lanean... Herri guneeetan dauden denda txiki batean egiten du batek lan, jai egunik gabe. Anai nagusiak, ordea, ez zuen lanik egiten eta gurekin ibili zen. Asko arduratu ziren. **Zer egin zenuten han?**

Egun batean Irati eta Aratz ikustera joan ginen, beste batean egun pasa eta beste behin festa erraldoi batera, Esmaran ere izan ginen Leitzako paketeak eramatera... Han ez dago ikusteko lekurik, ezin da turismoa egin. Gainera ez

dago erreperiderik, aireportutik Argeliako militarren gunen batera doana soilik dago eta eurentzat bakarrik da, sahararrek ezin dute erabili. *Land rover*etan ibiltzen dira baina hare artean egindako pistetatik, 5 kilometro orduko edo. **Bueltatzeko asmoarekin?**

Esperientzia oso ona izan da, baina egoera penagarria da eta ez dago eskubiderik. Bertara joan eta ez dela ezer pasatzen ematen du, baina militarrez eta minaz inguraturik daude, eta edozein unetan lehertu daitezke. Leku irekian bizi dira baina hura kartzela bat da. Libia eta Argeliak lagutzen diote, baina lehena laguntza murrizten ari da Marokorekin harremanak hobetzen hasi denetik. Espainiako Gobernuan Aznar zegoenean, hau Bushen alde zegoen eta Bushentzat Sahara estrategikoa da, hangoa ez delako hain islam itxia. Marokotik independentzia lortzearen alde zegoen. Baina Zapatero ez da hain AEBen aldekoa eta inmigratioari eta arrantzari lotutako akordioak sinatu ditu Marokorekin: etorkinei Espainiara joaten ez uzteko eta Espainiari Marokok beretzat jotzen dituen Sahara-ko uretan arrantza egiten uzteko.



Irudian ageri denez, Alkaiagan dagoen harrobiak auzoa ez ezik, Berako herriaren zati handi bat ere hartzen du bi kilometroren bueltan.

ALKAIAGAN IREKI NAHI DEN ASFALTO PLANTA EZTABAIDAN

Auzotarrak kontra dauden bitartean Orsak lanak laster hastea espero du

Eztabaida bizi bizi dago. Orsa enpresak Alkaiagan berriz martxan paratu nahi duen asfalto lantegiak hautsak harrotu ditu. 2006ko ekainean, Alkaiagan lehendik zuen lantoki zaharra itxi eta Berrizaunen (Igantziko Bentak) egin nahi izan zuen instalazioa enpresak. Baina etxebizitzak hurbilegi zeudelako eta auzotarren haserrea zela eta Igantziko harrobian egin zuen. Urtebete beranduago, ordea, Alkaiagan Armasa izeneko lekuan —harrobiaren barrenean— brea egiteko labea instalatzeko tramiteak hasi zituen, lekuz aldatzeko, eta 2007ko ekainean obrak egiteko Lesakako Udalaren baimena eskuratu zuen. Proiektua, ordea, ez da Alkaiagako eta Berako Agerra auzoko bizilagunen gustukoa. Harrobitik hurbil bizi direla eta, argi dute ez dela batere mesederako izanen. Proiektuaren alde desberdinek zer dioten hurbilagotik ezagutzeko, Berako eta Lesakako alkateengana, auzotar batengana eta Orsako kudeatzailearengana jo dugu.

Gurutze PIKABEA

Hasieran Alkaiagakoak eta orain Agerra auzokoak ere bai. Protesta aitzinera doa eta auzia epaiketetan dago. Agerra auzo-bilerak aurkeztutako mozioa puntuz puntu aztertu zuten abenduaren 20ko Berako udalbatzarrean eta aho batez onartu zuen lantegia Alkaiagan egitea ez dela «*baterre egokia, halako jarduera batentzat ez da tokirik egokiena herri sarrera, etxeko ataria, Alkaiaga eta Agerrako hainbat etxebizitza bertatik bertara dituela, eta Berako herri osoa 2.000 metroren inguruan*». ANV eta Aralarren aldeko eta EA eta EAJren kontrako botoekin, Lesakako Udalari egonezina agertzea ere onartu zen. Aitzitik, ANVk bakarrik babestu zuen epaiketetako gastuetan laguntzeko puntua.

Jexux TAPIA

Alkaiagakoa



«Bat bertzeari kulpa, bertzeak bertzeari. Auzoa haserre dago Lesakako Udalarekin»

100 bat metrora bizi naiz, baldin badira. Lehenenago 17-18 urtetan egon da planta hemen eta ongi dakigu zer den: soinua, hautsa eta usaina. Udan ezin da leihorik ireki, gabaz lanean aritzen dira eta gaba dezente baditugu lorik egin gabe galduak. Hautsak kentzen ere ordu aunitz pasatu ditugu. Baina hori baino tristeagoa da Lesakako Udaletik jaso dugun idatzia, ez dugula kexarik egin erranez. Gezurra da edo ez dira enteratzen? Planta hemen zenean hasi ginen kexak egiten. 94ko uztailean kexaren agiria hemen dut, eta horrez gain, auzotarren 90 bat sinadura bilduak badira. Hori ere ez da ageri. Bere garaian mugitzen hasi ginen, baina lgantzira zihoala eta lasaia-go gelditu ginen. 95ean alkatearekin bilera egin, eta orduan alkate zen Juan Fermín Mitxelenak asfalto plantaren kontua atzetzeko eta gai hori baztertua zegoela erran zigun. Eta hara non, 2006ko uztailean berriz honat datorrela! Lehengo alkateak gauzak gaizki egin zituela, eta oraingoak zer? Gauzak ikusteko denbora izan dute baina ez dute deus jakin nahi, hor tartean zerbait dagoela argi dago. Barriantea, industrialdea, atena zahar bat... Batek bertzeari kulpa, bertzeak bertzeari. Auzoa haserre dago Udalarekin. Kontua abokatuen esku dago, baina azken baimena Lesakako Udalaren esku.

Pedro SANTURDE

Orsa lantegia



«Jendeak halako instalazio bat zer den ongi ez jakitea dela arazoa uste dut, baina sinplea da prozesua»

Brea egiteko labe bat kokatzea da asmoa, lgantziko harrobian dagoenaren hagitz antzekoa. Alkaiagan lehen asfalto planta bat zegoen, eta hasieran bertzerik gabe, harrobiko zulora eraman nahi izan genuen. Baina azkenean, Ingurumen eta Industria departamentuak eta Lesakako Udalak proiektu berri bat eskatu ziguten. Orain lekuz aldatzeko baimena da duguna, eta hori aprobetxatuz araudi berriari egokituz eraberritu egin da proiektua. Bisualki %100ean eragingen du, errepidearen ondoan egotetik harrobi barrenera eramanen da eta soinu aldeetik ere guttiago nabarituko da. Alkaiagan zegoen aitzineko plantarekin ez genuen bizilagunen kexarik jaso. Are gehiago, harrobiaren ondoan etxebizitza bat egiteko baimena eman zen. Baina instalazio eta kokaleku berri honek lehen baino arazo guttiago eragingen dizkie inguruko. Instalazioa oraindik ez da paratu, arazo tekniko bat egon delako. Orain hor kokatzeko baimena badugu eta hilabete baten buruan edo, dena bukatua egoitea espero dugu. N-121A errepideko obrak nola doazen ikusita, ordurako instalazioa hor egoteko konpromisoa hartua dugu. Jendeak halako instalazio bat zer den ongi ez jakitea dela arazoa uste dut, eta horrek sortzen duela beldurra, baina prozesua sinplea da.

Koldo ERKIZIA

Lesakako alkatea



«Orsak asfalto planta lekuz aldatzeko baimena bakarrik du, ez du bertzerik egiteko baimenik»

Garbi gelditu behar du, Orsak lehenago Alkaiagan zegoen asfalto planta lekuz aldatzeko eskaera egin duela. Hori da ofizialki egin duena, 40 bat metro haratago lekuz aldatzeko eskaera eta horretarako baimena badu. Bertze zerbait eginez gero, hori ez litzateke legala izan. Ni nerone ez naiz bertan egondu eta ez dakit orain fisikoki hor dagoen ala ez, baina eskatutakoa ez den zerbait egiten hasten badira, guk kontrola eramanen dugula argi gelditzea nahi dut, eta hala bada behar diren neurriak hartuko dituela Lesakako Udalak. Aitzineko Udalak jarduera eta obra baimenak eman zituen, eta ondotik bizilagunek alegazioak aurkeztu zituzten eta Udalak Ingurumen eta Osasun Departamentura bidali zituen. Handik bueltan erran ziguten alegazio horiek ez zirela kontuan hartuko eta berretsi egin zen baimena. Hori bai, guk zorrotz jarraituko dugu eurek tramitatutakoa bete dezaten. Jendearen artean enpresak planta berria eraiki behar duela ere zabaldu da, baina guk ez dugu horren dokumentu ofizialik jaso udaletxean. Hargit bertzelakoa da estraofizialki zer ateratzen den... Enpresak planta berria egin behar duela erraten badigu, orduan tramitazioa berriz egin behar du, baina oraingoz guk ez dugu horren berririk.

Josu IRATZOKI

Berako alkatea



«Lesakako Udalari txostena zorrotz begiratzeko eskatzen diogu, azterketa seriorik ez baitugu ikusten»

Berako Udala berandu samar ibili da, guztia prestatzen zirenean ez baitzen erne ibili. Lesakako lurretan dago Alkaiaga, baina ondorioak jasanean dituen Alkaiagarekin batera Berako herria izanen da. Agerrakok bertan daude, harrobitik 300 bat metrora, eta arduratzen gaituen kontua da. Gure ustez kokalekua ez da batera egokia, eta badira leku hobek plantak hori paratzeko. Txostenean bertan erraten da, osasunarentzako txarra den jarduera bat dela, eta hori kontuan hartu behar da, eta baldintza minimoak errespetatu. Legeak dio lehen etxetik 2.000 metroko distantzia izan behar duela. Garbi dago, horri ke eta soinuek Alkaiagako ez zuzen-zuzenean eragingen dietela. Agerrakoei ez hainbertze agian, baina eragina somatuko da. Enpresak lekuz aldatzeko baimena eskatu zuen, baina planta hori ez dago hori eta ez badago lekuz aldatzeko eskatzea... Berako herriak orain ezin du epaiketara sartu, bere garaian Udalak ez zuelako alegaziorik aurkeztu, eta orain berandu da. Dena den, Alkaiagako auzotarrei gure atxikimendua adierazi nahi diegu eta Lesakako Udalari txostena zorrotz begira dezan exijitu, azterketa seriorik ez baitugu ikusten. Berako Udalari ere informazioa ematea ere eskatzen diegu.

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Iratzoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarrea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

2008ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	34 €
Espainia	34 €
Sara (La Poste)	52 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika eta Australia	115 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	27 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

● IRAKURLEAK MINTZO ●

Amaiur, Arizkun, Irurita, Oronoz eta Berroetako zinpeko alkateak Baztango Udaleko Gobernuko Batzordeari

Gan den astean, Baztango Udaleko Gobernu Batzordeak argitaratu emandako prentsa oharrean aitzinean zerbait aipamen egin behar dugu, uste dugulako bideari arras diferente nahi dituzuela eta informazioaren eta hizkuntzaren manipulazio hutsa dela.

1. Garbi gera daielea Erdizeko harrobi-mehategiari buruzko herri-kontsulta Baztango bost herritako alkatek eskatu dugula, eta ez talde politiko batek. Honen alde ez dago EAE-ANV bakarrik, baita guttienez bertzeko 954 baztandarrak ere, seguruenik NaBai eta UPNren aldekoak barne. Gu ez gara politikoak eta ez dugu joko politikoan sartu nahi. EAE-ANV eta NaBairen arteko tirabiretan gu ez sartu.

2. Herri-kontsulta "a la española" aipatzen duzuen hori ergelkeria hutsa da. Ongi dakizuen bezala, gaur egun Baztanen ez dago herri-kontsulta bat nola egin behar den erraten duen legerik. Horregatik guk kontsulta hori arautzen duen Foru Legea aukuratu dugu, Nafarroako

Parlamentuak onetsia. Zer diote Baztango ordenantzek honen inguruan? Ordenantzek akaso erraten dute informazio kanpaina eman behar dela eta nola eman behar den? Bitartekariak egon behar direla aipatzen al dute?

Baimena Madrilen eman behar dute, jakina, baina ez dugu ulertzen zertaz ematen diozuen honi hainbertze buelta, NaBairen ordezkariak Madrillgo Parlamentuan parte hartzen baitute.

3. Guk hautatutako bidea demokratikoa ez dela errateak ezjakintasuna adierazten du. Guk ez diogu inori informazioa ukatzen. Baina nahiago dugu Foru Legea aplikatzea enpresa pribatu baten eskuetan uztea baino (baztandarra ote da enpresa hori??). Objektibotasuna, inpartzialtasuna eta garrantasuna nahi dugu.

4. Beldurra diogula emaitzari? Inolaz ere ez. Horregatik herritarrei galdetzea nahi dugu, erraten dutena errespetatuko dugula erran dugu beti. Baina bai beldurra diogula NaBairen maltzurkeriari, faltsukeriari, informazioaren manipulazioari...

5. Autokritika ez dugula egin? Egin behar dugu? Prentsa aitzinean erran genuen garbi aski zer nahi ganuen eta nolako bidea egin behar genuen. Ez dugu iritzia aldatu eta ez dugu deus altxatu. Puntu berean gaude. Agian autokritika zuek egin beharko

zenukete, bazterrak nahasten ibili zaretenak. Akordio batera iristeko ahaleginetan ibili gara, ongi dakizuen bezala, iduri zuen posturak hurbiltzen ari zirela eta orduan adostutako proposamena zehaztu behar genuenean, prentsan eskatzen diguzue zuen plana onartzea. Horrek elkar ulertzea erreztan al du?

Baztan, 2007ko abenduaren 27a

**Sinatzaileak: Miguel Jose Ariztia (Amaiurko alkate jura-
do), Patxi Larralde (Arizkongo alkate jura-
do), Bittor Elizagoien (Oronozko alkate jura-
do), Peio Obregozo (Iruritako alkate jura-
do) eta Arantxa Ze-
laia (Berroetako alkate
juradoa)**

Milesker!

Nahiz eta jakin oraindik bide luzea dugula gure aurrean, urte hau bukatu zaigula eta, hainbertze lana egin ondoren aukera hau eskerrak emateko aproposa iduritu zait.

-Milesker gure ama-lurra eta eskubideak defenditzera kalera atera zaretenei, erakutsi baituzue borroka hau guztiona dela.

-Milesker diru erre-xari uko egin diozuenei, erakutsi duzuelakoz dirua ez dela bizitza honetan garrantzitsua.

-Milesker gure aurkako akusazio faltsu eta gezurrik sinetsi ez dituzue, agerian gelditu delakoz baztandarrok ez garela batzuek uste zuten bezain zofoak.

-Milesker herri galdeteta bultzatu eta horren alde sinatu duzue, ausardiaz jokatzeko gatik.

-Milesker gure bidean modu guztietako oztopo, gezur eta manipulazioak jarri eta erabili dituzue, zuen jokabidearekin lo zeudenak esnatu eta gure alde jarri dituzuelakoz.

-Milesker Erdiz Bizirik-eko taldekideei, momentu zailenetan Erdiz eta Baztanen alde lanean segitzeak merezi duela oroitarazi didazuelakoz.

Milesker Baztan eta Urteberri On!

**Garbiñe Elizegi
Narbarte**

Baztango NaBairen komunikatua

Pasaden abenduaren 17an, astelehena, Baztan Udaleko hondar osoko bilkuran Magnesitas Navarras S.A. (Magna) enpresak Artesiagako Erdiz eremuan aire zabaleko meategi bat zabaltzeko duen proiektuaren gainean herri kontsulta egiteko eskaerari bide ofiziala ematea aho batez era-

• IRAKURLEAK MINTZO •

baki zen. Herri kontsulta horren eskaera bertz herrietarrek egina da, eta 954 baztandarren sinaduren babesa ere lortu du. Eki-men horren bultzatzaileak Baztango bertz herrietako alkate juradoak dira, eta horretaz baliatu dira ekimena nabarmentzeko eta ofizialtasun handiagoa emateko, nahiz eta eskaera Baztango Batzorde Nagusiari bizkarra emanez bideratu.

Baztango Gobernu Taldeak eskaera honi bidea eman dio, araudi administratibo arrazoiak direla eta Baztandar batzuk horrela eskatu izana arrazoi aski delako. Alabaina, EAE-ANVren babesa duten bertz herrietako Alkate horiek erabili duten lege horri heltzea harrigarria da, batez ere lege horren 9. artikulua honela diolako: «Nafarroako Gobernuko Lehendakariak baimen eskaria egiten dio nazioko gobernuari (azken aldi honetan Madrilen boterean dagoen PSOEek Espainiako Gobernua deitzen duena), herri-kontsulta gauzatze aldera, nazioko gobernuak eman beharko duena». Nolako herri-kontsulta nahi du EAE-ANV? Espainiar modura ala Baztandarren gisara?

Bortz Alkate-Juradoek eta EAE-ANV jakin bazekiten eta jakin badakite Baztango Herriak gatazkak bideratzeko eta erabakiak hartzeko tresna demokratiko propioak dituela, hau da, Balleko Batzorde Nagusia, Udaltzarrea eta herrietako Batzarreak, non Baztanen herri-kontsultak gauza-

tzeko aukera dugun, udalez gaindiko inolako instituzioen baimenik eskatu gabe, are gutxiago Espainiako Gobernuari. Hori gutxi ez balitz, bertze lekuetan eratu izan diren antzeko ekimenak ikusita, Elorrioren kasu, eta gai honetan adituak diren iritzien arabera Madrilek baimendu beharreko herri-kontsultak ez gauzatze arrisku handia du.

Zergatik egin dute? Berriak jakin dute, Baztandarren aitzinean ez baitute inolako autokritikarik egin. Baztanen ditugun bertako moduez baliatuz herri kontsulta egitea posible dela ezagututa zabaldu nahi izan duten Madrilek bidea ulertzea baztandar aunitzei zaila egin zaie. Ordea, Baztango Nafarroa Bai udal taldeak irain higuin garri, zakar eta doilorrak bertzerik ez ditu bildu, EAE-ANV berriki banatutako panfleto baten bitartez Baztango Alkate eta NABAI taldearen kontrako akusazio pertsonal faltsuak hedatu baititu. Hau ote da era demokratikoan jarduteko modua? Inolako frogarik agertu gabe zabalduak akusazio faltsuak eta gezurrak ezin dira elkarrizketa, elkar-ulertzea eta iritzi ezberdinen hurbiltzeko oinarri izan, hori argi dago. Hori ez da mezu politikoa osatzeko modua, are gutxiago Herri eta Aberri bat eraikitze bidea.

Hala ere, hori guztia gainera, Baztango Udaltzarrea eta herrietako Batzarreak, non Baztanen herri-kontsultak egiten die, Mag-

na enpresak Erdizagan meategia zabaltzeko duen proiektuaren aitzinean laster aurkeztuko den Informazio, debate eta kontsultarako Planari baietza eman diezaioten. Plan horrek hiru fase ditu: lehen dabilikoan informazioa, eztabaida eta debatea, beharrezkoa baita Baztango errolda osatzen duten 6.352 baztandarrentzat proiektua aintzat dutenen argudioak eta arrazoiak zuzenean ezagutzeko, modu berean proiektua gaitzesten dutenenak. Bigarrena hausnarketa fasea, hirugarrenean herri-kontsulta.

EAE-ANV goستن duen bezala herri-kontsulta bat egiteko hautestontziak jartzea ez da aski, hori prozesuaren amaiera izanen zen. Informazio eta parte-hartze prozesu baten kontra egitea EAE-ANV babesten dituen bertz herrietako Alkateen kontsultaren eskaerari bere sinadura eman ez dioten 5.046 (%79,43) baztandarren ezagutzeko, informatzeko eta erabakitze eskubidea urratzea da. Akaso, ustezko emaitza kontrakoa izango ote den beldur daude? Modu horretan prozesua guztiz demokratikoa ez da, inolaz ere.

Elizondon, 2007ko abenduren 21ean.

**Virginia Aleman
Baztango Na Bai**

Igor Portu eta Mattin Sarasolaren egoera dela-eta

Igor Portu eta Mattin Sarasola makina bat lan eginak dira euskararen alde. Igor, gainera, Lesakako Euskara Batzordeko kide da. Hori dela-eta, hunkituta gaude, eta, atxiloten eta ondorengo gertakarien harira, honako hau adierazi nahi dugu:

1. Igor, ospitalean zaude oraindik, zainketa berezien gelan. Gure bersarkadarik beroena sentitu ezazu, bihotzez bidaltzen dizuguna. Bortizki jipoitu zaituzte, zure bizitza arriskuan jartzera ino. Azkarra zara baina, eta zauri larri horiek laster osatzea opa dizugu. Gorputzeko orbanak aste batzuen buruan sendatuko dira, gogo-arimakoak, berriz, zailagoak izanen dira desagerrarazten. Animo! Beti bezain gogotsu nahi zaitugu, irribarrea ahoan, lanerako prest eta gainezka duzun energia horrekin!

2. Mattin, hagitz kezkatuta gaude zure egoeratik. Madriler ailegatu zinen ubelduak eta markatuak zenituen gorputzeko hainbat tokitan, Auzitegi Nazionaleko mediku txostenaren arabera. Inkomunikazio aldia ortziralera arte luzatzeko eskaria ontzat eman zuen epaileak, eta ziega-zuloran jasotzen ariko zaren tratuari buruz beldur gara.

3. Gure elkartasuna eta besarkada bero bana

helarazi nahi dizuegu Igor eta Mattinen guraso, senide, lagun eta inguruko ei. Une latz hauetan zuen ondoan gaituzue. Gure boza zuen eskakizun ozenari gehitu nahi diogu; inkomunikazio aldia bertan behera gelditu dadila, epailearen aitzinera lehenbailehen eraman zaitzatela, eta konfiantzako abokatu eta sendagilearekin egoteko aukera izan dezazuela berehala.

4. Espainiako agintariak emandako azalpenak ez ditugu sinisten. Ederki aski dakite zer gertatzen den euren ziega-zuloetan, eta benetako borondatea balute horrekin bukatzeko, tratu txarrak, tortura eta zigorgabetasuna baimentzen dituen tunel iluna, inkomunikazioa alegia, bertan behera utziko lukete. Aurrekari aunitz ditugu eta horietako batzuk hagitz hurbilekoak. Oraingo honetan, ordea, azalera ageri da bertzeetan "estalpean" gelditzen den krudelkeria, jakina eta begi bistakoa izanagatik; Igor bortizki jipoitu dute eta horrek eraman du ospitalera, bere bizia arriskuan zatekeen-eta berehala artatu ez balute.

Tratu txar eta torturakin amaitu beharra dago. Horregatik, Igor Porturen eta Mattin Sarasolaren eskubideak errespetatu daitezen galdegiten dugu eta torturaren eta inkomunikazioaren kontrako mobilizazio deiekin bat egiten.

**Lesakako Euskara
Batzordea**

BORTZIRIAK

Litekeena da Bortzirietako hondakinak Iruñera eramatea

Joan den urriaren 31z geroztik Ibardingoa «legez kanpoko» da

ttipi-ttapa

Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatean oraindik erantzun ofizialik jaso ez badute ere, badirudi Bortzirietako hondakin solidoak Iruñeko Gongora zabortegira eramaten direla. Hasiera batean Tuterako El Culebrete biometanizazio plantara eramatea aurreikusitako zen, baina horrek garraioan gastu haundiak sortuko lituzke. Irtenbide bila, Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak eskaera aspaldi egin zuen, eta orain, antza, Gongorako zabortegira eramaten dira Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako hondakin solidoak. Hartara, egunero Tuteraraino eramateak ekarriko lukeen garraioaren gastua murriztu egingen da.

Araudiak hala eskatuta, joan den urteko urriaren 31rako Ibardingo zabortegiak itxita egon beharko luke. Oraindik martxan dago



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Duela hilabete batzuk Ibardingo zabortegia bisitatu zuten hainbat teknikaririk eta eskualdeko alkateek.

eta alde horretatik «legez kanpoko» dela erran liteke. Bortzirietako Mankomunitatean adierazi digutenez, Nafarroako Hiri Hondakin Solidoen Partzuergoaren bitartez presioa egingiten segitu dute arazoari soluzioa emateko, eta azkenean badirudi lortzear daudela. Dena

den, ez dute ofizialki erantzunik jaso eta informazio aunitz prentsaren bidez jaso dute la ere salatu dute.

Tuterara eraman beharrean Iruñera eramateak gastuak eta kamioien ibilbidea ere murriztuko luke. Izan ere, El Culebretera garraiatzeak urtean 240.000

euroko gastua sortuko lukeela aurreikusia dute Bortzirietan. Hala ere, Zozaian egingen den biometanizazio planta erabiltzean gastua tikiagoa izanen litzateke.

Bertzalde, aipatu, Baztan eta Malerreka-ko zaborrak Tuterako El Culebretera eramaten direla.

FLASH

Baztan-Bidasoako gasbideko lanak martxoan hasiko dira

Abenduaren 27an, Bertizko Jauregian sinatu zuten Baztan-Bidasoako gasbidearen proiektuaren ezaugarriak biltzen dituen hitzarmena Jose Maria Roig Aldasorok, Nafarroako Gobernuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegurako kontseilariak eta Jose Maria Gilek, Gas Navarrako zuzendari nagusiak. Ekitaldian, Begoña Sanzberro Landa Garapen eta Ingurumen kontseilariak ere parte hartu zuen. Roig kontseilariak aipatu zuenez, «gasbide honen bidez, Baztan-Bidasoako lurraldearen oreka Nafarroako bertze lurraldekoekin parekatuko da, eta enpresa eta negozioan kompetibitatea handituko da. Gisa berean, herritarren ingurumen baldintzak eta erosotasuna hobetuko dira». Roigek azpimarratu zuenez, Nafarroa izanen da estatu osoko lurralderik «gasifikatuen», %84ak izanen baitu gas instalazioa». Gasbideak 33 kilometro eta erdi izanen ditu eta lehengo Bidasoako trenbidearen trazatua aprobetxatuko du, ingurumenari ahalik eta kalte guttien eragiteko. Lesaka eta Elizondo lotuko ditu eta banaketa sareak eta hargunak izanen ditu Sunbilla, Doneztebe, Legasa, NARBARTO, Oieregi, Oronoz-Mugairi, Arraioz, Irurita eta Elbeterako. Inguruko 6.200 herritarreri eta Legasako Aceraliari zerbitua eskainiko dio. 8,7 milioi euroko inbertsioa egingen da eta horietatik 3,8 milioi Gobernuak emanen ditu.

PERSIANAS **TOLDOS BAZTAN**

TOLDOAK salmenta-konponketa- alokairua-errotulazioa
MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatuak-venecianak
PVCzko LEIHO eta ITXITURAK

Tel-Fax: 948 631 003
 Bidasoa, 66 behea - BERA

ZJ
Zalain
 jatetxea - hostala

14 logela bainu
 eta TBekin

Zalain suvia z/g
 Tfnoa: 948 63 09 67
 BERA

BERA

Publikoak diren eraikin erlijiosoak pribatizatzea galaraziko du Udalak

Izaera erlijiosa duten eraikinen inguruko mozioa onartu du

Amaia eta Ainhoa

Berako Udalak era-bilera erlijiosa duten eraikin eta ondasun publikoak eta egoera berdinean edo antzekoan dauden eraikinak pribatizatzea galarazteko beharrezkoak diren prozedura legal guztiak egiten ditu. Uharteko Udalak izaera publikoko eraikin erlijiosoen eta Nafarroako herrien beste propietateen Defentsaren inguruan bidalitako mozioa onartu du Berako Udalak. Mozio honen aurrean EAEk aldeko lau botu eman zituen eta gainerako taldeak abstenitu ziren. Gainera, Hipoteka Legeari jarraituz, oraindik erregistratu gabe dauden eta Elizak pribatizatu ditzakeen eraikin, ermita, hilerri, etxe eta gainerako jabego publikoak ondasun publiko bezala eta Berako Udalaren izenean jarriko dira. Akordio hau Nafarroako Gobernu, Parlamentua, herria eta Uharteko Udalarari helarazi zaió.

Kaldereroak lokalan

Inauterietan Kaldereroak ospatu izan dira azken 30 urteetan. Ha-

sierako urte haietan parte-hartze zabala izan bazen ere, besta hau ez da ongi errotu. Parte-hartzea gero eta eskasagoa da eta antolaketan lanetan aritzeko gero eta jende guttiago dago. Orain arte Kultur Batzordeak bere gain hartu du ekitaldi hau antolatzeko ardura baina jende guttiak parte hartzen duenez, eta karrikatan ikusle gutti izaten denez, besta antolatzen segitzeak ez duela aparteko zentzurik uste du. Hortaz, Kultur Batzordeko kideek bestarekiko interesik lukeen herritar edo elkarteei nahiz aurtengo bestaren antolaketaz arduratzeko prest daudenei, dei egiten diete honen inguruan gogoeta egiteko. Kultur Batzordeak beharrezko azpiegitura eta laguntza guztia eskainiko luke nahiz eta aurtengoan ez duen antolatuko. Urtarrilaren 16ean 19:00etan Kultur Etxean bilera irekia izanen da besta honen etorkizunaz solasteko.

2007an 43 biztanle guttiago

Hiru urtez jarraian biztanle kopurua handi-



ARGAZKIA: TTPI-TTAPA

Baietz Taldeak irabazi du Gabon Kopa txapelketa
Urtero bezala, abenduan Berako Toki-Ona Kiroldegiak antolatutako Gabon Kopa futbito txapelketa jokatu zen. Finalean Baietz Taldea Zurruten kontra aritu zen eta azkenean Baietzek lortu zuen garaipena 3-2 emaitzarekin. Final nagusiaren aitzinetik hirugarren posturako lehia Kosta Marfil eta Ya Te Ga taldeen artean izan zen. 8-3 Kosta Marfilek irabazi zien partida. Taldeei emandako sariez gain, banakako bertze sari batzuk ere banatu ziren. Finaleko jokalaririk onenaren saria Zurruteko Andoni Lasagak eraman zuen; txapelketako golegile nagusiaren saria Baietz taldeko Aritz Perezek eta atezainik onenarena Zurrut taldeko Matias Telletxeak.

tu ondoren, 2007ko urtarrilaren 1eko datuen arabera, Beran biztanleria murriztu egin da. Zehazki, azkeneko urtean 43 biztanle gutxiago daude. 2004an 3.659 biztanle zeuden herrian, 2005ean 3.666 eta 3.727 biztanle 2006ean. Orain 3.684 bizilagun daude herrian, aurreko urtean baino %1,15 guttiago. Eskualdeari dagokionez, biztanleria ez da igo. Guztira 46 bizilagun gehiago daude. Gainera, biztanleria zahartzen ari da, adinaren piramideko goiko zatia handituz.

Toki-Onako zozketa

Abendu hasieran erre zen Etxalarko Oiar-

buru baserriaren alde Toki Ona Institutuak abiatutako zozketa egin zen joan den lehengo astean. Eskualdeko denda eta komertzioetatik pasa ziren borondatea eskatuz eta lortutakoarekin bostz lote osatu zituzten. Zozketaren arabera, hauk dira sarituak: lehengo lotea 4.244 zenbakiarentzat, Berako Jaione gogotegian saldua; bigarren lotea 2.315rentzat, institutuan eta Lesakan saldua; hirugarrena 2.023 zenbakiarentzat, institutuan eta Sunbillan saldua; laugarrena 2.572 lotearentzat, Berako Goia dendan saldua; eta azken lotea, 4.120 zenbakiarentzat, Lesakan saldua.

Zenbaki saritua denak dei dezala 948 625000ra (15:00ak arte) edo 948-630629ra (15:00etatik aitzinera).

'Encuentros con la Guardia Civil'

Berako Liburutegiak eta Berako Kultur Batzordeak antolatuta, Josu Goiak *Encuentros con la Guardia Civil* zeneko liburua aurkeztuko du liburutegian urtarilaren 24an, 19:00etan.

Musika entzunaldia

Berako Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolak antolatuta, hilaren 23an tronpeta, perkusio eta txistu entzunaldia izanen da musika eskolan 17:00etan..

© 948630052 • Zalain • BERA

Azken Te BERA BARRER

carne gogotegia
gogotegia.ekitegia
C/ de Estigarribia 25 baxo 1548 63 08 99
50700 leiza (navarra) www.carne.net

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 BERA

LESAKA

Igor Portu eta Mattin Sarasolaren atxiloketak torturaren kontrako aldarrikapena ekarri du

Guardia Zibilak atxilotu eta 16 ordura Donostiako Ospitaleko UClan sartu zuten Igor

Aitor AROTZENA

Igor Portu Juanena eta Mattin Sarasola larzabal herritarrak atxilotu zituen urtarrilaren 6ko goizean Guardia Zibilak Arrasaten. Polizia iturriak aipatuz, hainbat agentziek jakinarazi zutenenez, kontrol batean antzeman zituzten eguerdian eta bi pistola zituzten, nahiz eta gero lekuko batek bertso hori gezurtatu duen.

Atxilotu orduko, inkomunikaziopean jarri zituzten. Madrilerara emanen zituztela zabaldu bazen ere, gero beraien etxebizitzak miazera etorriko zirela jakin zen. 22:00ak aldera Guardia Zibilak herri osoa hartu zuen. Lehenik, Mattinen gurasoen etxebizitza eta ondotik, Igor Porturen pisua eta beraien gurasoena miaztu zituen Guardia Zibilak. Nekaturik, baina ongi zeudela nabarmendu zuten ikusi ahal izan zituztenek.

IGOR PORTU LARRI

DONOSTIKO OSPITALERA

Igor Portu lesakarra Donostiako ospitaleko UCira eraman zuten urtarrilaren 7ko goizaldean, saihesta hautsita eta biriketako arazoak zituela. Medikuek iturriek aipatutakoaren arabera, "hautsita saihesta batek birika zulatu eta haizea galdu du". Horretaz gain, begi batean odol-jarioa eta hainbat kolpe agerian dituela aipatu zuten Donostiako Ospi-



ARGAZKIAK: EDURNE ZUBIETA/ALICIA DEL CASTILLO

Urtarrilaren 7ko agerraldia eta urtarrilaren 9an udalak «Lege antiterroristaren kontra, Torturarik ez» deitutako kontzentrazioa.

taletiketa Igor berak, ukabilkadak eta ostikadak jaso zituela erran zuten, bertzeak bertze.

UDALA AHOBATEZ INKOMUNKAZIOAREN KONTRA

Urtarrilaren 7ko eguerdian bizilagun talde batek, atxilotuen senide eta lagunak tartean, prentsaurrekoa es-

kaini zuen. «*Atxiloketak gertatutakoan genituen susmo eta beldurrak bete dira. Gorka Lupiañezen testigantza beldurgarria aditu genuen eta orain ere hori bete da. Amnistia Internacional erakundearen arabera, Euskal Herrian 7.000 tortura kasu baino gehiago gertatu dira azkeneko 30 urteetan*».

Egun berean, ez ohiko batzarra egin zuen udalak eta ahobatez onartutako mozioak zioenez, «*bada garaia, aski da! errateko. Justizian oinarritzen den jendar-te batek ezin du onartu torturaren erabilera eta honen desagerpeneko neurri sendoak hartu behar ditu*». PNV, Onin eta EAko zinego-

tziek, gogor eta argi salatu zuten Igor Portuk Guardia Zibilaren eskutik jasandako tratua: «*Agerikoa da Estatuko Indar Polizialek atxilotuen eskubideak errespetatu ez dituztela, eta inkomunikazioaren funtsa bakarra urraketa hauei bide ematea eta zigorrrik gabe burutzeko espazioak sortzea dela*». Inkomunikazioaren deusezta eskatu zuten. Udalak «Lege Antiterroristaren kontra, torturarik ez» lemapean kontzentrazioa deitu zuen hilaren 9an, bortz herrietako udalei zein herritarrei gonbidatuz. Kontzentrazio honetan 400 bat lagun bildu ziren.

Torturaren aurkako aldarrikapenak indarra hartzen zuen neurrian, Portu eta Sarasolaren kontrako salaketak ere gogortu zituen Espainiako Barne Ministerioak. Hasieran ETAko kide eta armak edukitzea leporatzen zieten, mugalari izatera pasatu ziren gero eta azkenean, hainbat atentaturen egiletzat jo dituzte, beti ere inkomunikazioan egin-dako adierazpenen ondorioz. Barajasko aireportuko atentatuaren egiletzat ere jo dituzte, nahiz eta irailean atxilotutako bertze lau lagun kargu bera leporatu. Porturi ospitalean eta Mattini Audentzia Nazionalean hartu zien deklarazioa epaileak eta biak gartzeleratzea agindu du.

ETXALAR

Patxiku Irisarri alkatea lanaldi osoan ari da urtarrilaren 1etik

EAK gogor salatu du hilean 1.500 euro kobratu eta 14 paga izatea

Joseba eta Nerea

Urte berriak lan gehiago ekarri dio Patxiku Irisarri alkateari, edo behintzat, dedikazio handiagoa. Urtarrilaren 1etik aitzinera, egun osoz ari da Herriko Etxean lanean, erran digunez «*herriarrei zerbitzu osoa eta hobe eskaintzeko helburuarekin*». Hemendik aitzinera herriko kontuekin bakarrik pasatuko du eguna. «*Idazkari berria dugu, teknikoak ere bai, eta beharra ikusten genuen*». Goizero bulegoan egonen da, joan nahi duen guztiarentzat.

EAK bere aldetik, alkatearen soldata gehiegizkoa dela kritikatu du, «*hilean 1.500 euro garbi eta urtean 14 paga. Soldata gordinaren urteko kostua 26.000 eurokoa izanen da herriarentzat*». Aldi berean, hauteskunde aitzinetik errandakoa ez duela bete uste du EAK. Kritika horiei erantzunez, Herri Taldeak prentsaurrekoa eskaini zuen ilbel-



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Matxinek eta bere lagunek aurten ez dute Lisboa-Dakar egiterik izan.

tzaren 10ean: «*1.500 euro aunitz den edo gutti den, gu horrekin ez gara sartuko balorazioak egiten. Tipi-ttaparen urriko alean agertu ziren eskualdeko alkatezinegotzien soldaten berri eta jendeak aski du konparatzea. Argi utzi nahi dugu, dedikazio osoarekin 1.500 euro kobratuko badituz ere, lehen Etxalarko Udaltetik 600 euro kobratzen nituela. Lehen Udalarri 10.000 euro gostatzen*

zitzaion eta orain 26.000». Herri Taldeko kideek hauteskunde kanpainan Herriko Etxeari eskaintzeko nahiko denbora bazutela aipatu zutela zioen EAK kritikaren bertze zati batean. Honi erantzunez, Patxiku Irisarri «*eskaintzen diogun denbora horiez da nahikoa, edo eskaintzen diogun denborarekin ez dugu nahiko eraginkortasunik lortzen. Beraz, Herri Taldearen batzarrean era-*

baki genuen alkateak dedikazio osoa izatea».

Iribarren Lisboa-Dakar-etik kanpo

Fernando Arregi eta Fernando Pueblarekin batera, Nafarroako ordezkari batzuetatik abiatu zen Lisboaara Angel Iribarren Matxinehilaren 1ean. Baina segurtasunagatik, Lisboa-Dakarra bertan behera gelditu eta etxerako bigarrena hartu zuten.

FLASH

Inauteriak

Urtarrilaren 31n hasiko dira inauteriak, eta haurrak izanen dira lehenak. Ortzegun Gizenarekin etxez etxe eskuan ibiliko dira goizean. Arratsaldean, kalejiran ibiliko dira trikitilariekin eta antzerkiak eskainiko dituzte. Ziklo bakoitzeako ikasleek antzerki bana egingen dute, gutxira lau. Otsailean, berriro, nagusiek segituko dute inauterietan, astelehen eta asteartean, otsailak 4 eta 5. Kinto bestak ere otsaileko lehenbiziko igandean egingen dira.

Larraburuko mus eta partxis txapelketak

Urtarrilaren 6an akabatu zituzten Larraburuko jubilatuek mus eta partxis txapelketak. Jesus Ansalas eta Leontxio Arburua izan ziren txapel-dunak, bigarren Jose Luis Arretxea eta Lorentxo Ibarra, eta hirugarren Jabier Indaburu eta Periko Telletxea. Partxisean, Birginia Arburua eta Asun Elizalde izan ziren txapel-dunak, eta Mertxe Santesteban eta Maria Isabel Berrueta txapel-dunordeak. Hilaren 13an egin zituzten bazkaria eta sari-banaketa eta igande honetan, Magra Txapelketa hasiko dute.

ARANTZA

Gobernuak emandakoa bakarrik jasoko dute udal hautetsiek

Zinegotzi bakoitzak joaten den pleno bakoitzeko 20 euro hartuko ditu

Nerea ALTZURI

Abenduko udal informazioa banatu zen herriko etxe guzietara eta bertan agertutako berri batzuetan oinarrituko gara hurrengo leuroetan.

Joan den azaroaren 5ean eginiko plenoan, bertze puntuen artean udalkideen lansariei dagokiona erabaki zen. Udaleko alkate eta zinegotzien ordainsarirako erabiliko den dirua Nafarroako Gobernutik espreski udalkideei ordaintzeko ematen duten dirua erabiliko da eta ez da Udaleko dirutik deus hartuko legealdi honetarako. Zinegotzi bakoitzari joaten den batzar edo pleno bakoitzeko hogeituro emanen zaizkio. Gainerako dirua alkateak kobratuko du, ematen duten diru guzia aprobetxatuz, bertzela ez baitute osik ematen. Bertzalde, Arantza Aintzinerako zinegotziek eta alkateak kobratuko duten diruaren zati bat edo dena



ARGAZKIA: NEREA ALTZURI

Errege kabalgata arrakastatsua

Urtarrilaren 5ean, hainbat herrietan bezala, errege kabalgata egin zen herrian. Jende mordoskak parte hartu zuen modu batean edo bertzean. Mezondoan, ilunabarreko 8ak aldera ailegatu ziren Meltxor, Gaxpar eta Baltaxar beuren laguntzaileekin. Herriko plazan harrera egin zieten udal zinegotzi eta herritarrek eta Aitorrek, Udaleko zinegotziak, bi bertso kantatu zizkien. Ondoren, azken urteetan bezala, elizara joan ziren. Jaiotza biziduna ere bertan zegoen. Haurrak eta helduak, guziak zeuden opari eske joanak. Hurrengo urtean ere, zapatak garbitzeko eta dizdiran paratze-ko ilusiorik geratu ote??.

Udalari emanen diote donazio moduan.

EGUR LOTEAK

Bertzalde, urtarrilaren 31a bitarte egur loteak

eskatzeko epea ireki du Udalak. Loteak orain arte bezala, 30 euro balioko dute. Eskaerak Herriko Etxean, bulegoko ordutegian egin behar

dira eta eskatzen denaren arabera loteen markaketa egingen da. Gisa berean, eskatzaileri adieraziko zaie non emanen zaien egurra.

FLASH

Ortzegunetik igandera inauteriak

Aurten inoiz baino goizago izanen dira inauteriak. Arantzan, ortzegun honetan hasiko dira, eta larunbatean bukatu. Protagonista nagusiak mozorro zuriak izanen badira ere, eskolako ikasleak ere ortziralean eta larunbatean eskean ibiliko dira eta nork daki, baliteke mozorro beltzak ere agertzea.

Hilak 17, ortzeguna

09:00etan mozorro zurien gosaria Primitibo ostatuan.

Ondotik, mozorro zuriak eskolara joanen dira.

Bi taldetan banatu eta baserriz baserri ibiliko dira trikitilariekin eta Irazu eta Maia bertsolariekin.

Hilak 18, ortzirala

Goizean mozorro zuriek Primitibo ostatuan gosalduko dute.

Ondotik trikitilari eta panderojoleekin herrian barna ibiliko dira.

Gauean Emakume Afaria. Mozorro zuriek Ekaitza Elkartearen afalduko dute.

Gauerdian, dantzaldia Herriko Etxeko gorapean Modesto akordeoilariarekin.

Hilak 19, larunbata

Eguerdian mozorro zuriak bazkaria egingen dute.

16-17:00etan hurren mozorroekin kalejira herrian barna.

Ilunabarrean, frontoian ikuskizuna: zaldi lasterketa eta herri kirolak.

21:30ean bertso afaria Irazu eta Maia bertsolariarekin.

Gauerdian Jalisko Band taldearekin dantzaldia.

GOIENBURU
INGURNERA
Iturgintza, kaltetakzioa eta gasa
eguzki platak eta biomasa
Goienburu, 10 • 31790 ARANTZA • 600 902 723

Tel: 948 634 179
ARANTZA
ATERPE
ALBERGIA
ALBERGIA • JATETXEA

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METAICOS S.A.
Igantziko bentak
948 63 74 11

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraioak zintak eta mahaia
- Mantenu rodilloak

IGANTZI

ESKUALDEA

Urtarrilaren 25ean eta 26an izanen dira inauteriak

Bertzeetan ez bezala, aurten ortziral goizean bilduko dira mozorroak

ttipi-ttapa

Euskal Herriko eta gure eskualdeko bertze txoko aunitzetan bezala, Igantzin ere urtarrilaren 25ean eta 26an egingen dira inauteriak. Bertze urteetan mozorroak ohiko ibilbidea bazkalonodoan abiatzen badute ere, aurten goizean hasiko dira. 11:00etan elkartu eta Berrizaun auzora joanen dira. Han eskean ibili ondotik, bazkaltzera herrira itzuliko dira. Arratsaldean, berriz, herri inguruan ibiliko dira eskean. Eguna behar bezala bukatzeko, afaria egingen dute mozorroek.

Larunbatean goizean goiz bilduko dira mozorroak, 8:00etan. Iri-sarri auzotik hasita, herri bazterreko bertze au-



ARTXIBOA

Neska zein mutil, koadrila ederra bilduko dira aurten ere Igantzin inauterietan.

zoetan barrena ibiliko dira, Elusta, Unanu, Piedade Gaina eta Frain auzoan. Gauean mozorro eta nahi duten ber-

tze guztiek afaria egingen dute.

Herriko ttikienek ere izanen dute inauterietan gozatzeko aukera.

Hala, larunbatean, bazkalondoren euren mozorroak erakutsiz desfilea egingen dute musikariekin batera.

Sahararen alde janari bilketa Bortziriak, Baztan eta Malerrekan

Saharar herriaren aldeko taldearen ekimenez, janari bilketa egingen ari dira aste honetan Baztan, Bortziriak eta Malerrekan. Arroza, pasta, legunbreak, azukrea, olioia eta sardina eta atun latak biltzen ari dira eta ortziral izanen da azken eguna. Baztanen udaletzeko bajebara eraman behar dira (10:30-13:30/16:00-20:00). Donezteben Telletxea Altzariak-en lokal zaharrera (10:30-13:30/17:00-20:00). Lerro hauek idaztean zehaztu gabe zeuden oraindik Bortziritako datuak.

bortzIRUDI
bortzirudi@telefonos.net

KARTELAK - KAMUSETAK - BIDERAK - TIKETETAK (Nahi duzun nazari - diruzimurak)
FOTOKOPIA DIGITALAK - KOLORATZAK - TIGRO BEZETZAK - PLANOAK
ENKUADEKATZAK - PLASTIKAZAK - PEPETTAK - BULEGO MATERIALA
DESENIO GRAFIKOA - LOGOTIPOAK - TARTAZAK - IMPRENTA

Ertegaro, 24. Eskualdeko Bidea D - BERA - Tel/Fax: 948 631 571

**ttipi
ttapa**

☎ (0034) 948 635458

ALBINEA
ostalarua jatetxea

ONGI PASA INAUTERIAK

Karrika Nagusia • IGANTZI • 948 637 497

LA VILLA
JATETXEA

Janari tradizionala • Egunero irekia

IGANTZI • Tfnoa: 948 63 72 90 (Erreserbak esiteko)

ONGI PASA INAUTERIAK

SUNBILLA

Herriko pilotari gazteek emaitza ezin hobeeekin bukatu dute 2007a

Iker eta Andoni Espelosin anaiek eta Julen Juankorenak hiruna txapel jantzi dituzte

Jaiene OTXANDORENA

Hiru gazte aritzen dira Sunbillan esku pilota txapelketetan eta 2007. urtean denboraldi bikaina egin dute hirurek. Iker Espelosinek hiru txapelketa irabazi ditu (Ihurtzungoa, Sunbillakoa eta Baztangoa) eta bertze bi txapelketetan azpitxapeladun gelditu da. Bere anaia Andoni Espelosinek ere, beste hiru txapel irabazi ditu (Zaraitzungoa, Sunbillakoa eta Ezkurra Memoriala). Julen Juankorenak ere hiru txapel irabazi ditu (Erreka txapelketako binakako eta banakako txapela eta Sunbillakoa). Segi dezatela aurten ere orain bezain ongi jokatzen iazko denboraldi bikaina berdindu edo hobetzeko. Zorionak!!!

2008ko bigarren nafarra sunbildarra

Joan den urtarrilaren 1ean, gaueko hamabiak eta hogeana jaio zen Bideko Ama Birjina Ospitalean aurtengo Nafarroako bigarren haurra. Iker Lanza Garcia izena du eta Sunbillakoa da. Iker jaio aurretik bertze neska bat jaio zen bera baino bost minutu lehenago baina gurasoek ez zuten beren izena egunkarietan azaltzeko baimenik eman. Beraz, Ikerren ama Soledad, bere aita Oscar eta anaia Asier izan ziren hurrengo egunean egunkarietan azaldu zirenak, argazki eta guzti. Ikerrek, jaio zenean, 3,600 kilo pisatu zuen eta 49 zentimetro neurtu. Zorionak gurasoie!!!



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

Hiru erregeak bisitan

Joan den urtarrilaren 5ean, Antzakaitz Kultur Taldeak antolatuta, errege kabalgata izan zen Sunbillan. Arratsaldeko mezaren ondoren, Meltxor, Gaspar eta Baltasar traktore banatan azaldu ziren eliza atarira bere laguntzaileak ondoan zituztela. Gaztetxoak banan bana erregeengana hurbiltzeko aukera izan zuten, goxokiak eta globoak biltzera eta ondoren adin ezberdinen artean jostailuak zozketatu zituzten. Jaiotza biziduna ikusteko aukera ere izan zuten eliz atarira hurbildu zirenek, aurtengoa Esther Ezkurra eta Sergio Irazoki beren alaba Aielenekin izan ziren jaiotza osatu zutenak, eta herriko zenbait gaztetxo izan zituzten ondoan jantziak.

Lulu
Hondarribia, 15
IRUN
943 616 165

SUPER-MERKEALDIA

%50

bitarteko deskontuak
Jertseak, txaketa,
galtzak, berokiak eta
zeremonietarako
jantziak

38tik 64a bitarteko neurriak

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Aitzale, 17 - BERA

ZUBIONDO
Jatetxea
sagaridategia jatetxean
Alasta karrika
TEL: 948 630 472 BERA NAFARROA

IRU BIDE
Envergata - Aozka
Bian 200, 1. Leuketa
Tel: 948 637 127

MERTZERIA
Leñe
LENTZERIA
Tel: 948 637 514
Berrito Plaza, 10 - LESABA

ANTZUZELAS
S.L.

Tel: 948 631 317

HARRI NATURALA

Ahoratzen eta Lantzen

Harriak	Lantzen
Harriak	Lantzen
Harriak	Lantzen
Harriak	Lantzen
Harriak	Lantzen
Harriak	Lantzen

Harriak eta Lantzen
Tel: 948 631 317

JINTARRUA
ABUETAN
ZULAK

Inongo errepidea
BERA

DONEZTEBE

Erreka Elkarteko kideek kirola eginez akitu zuten urtea

Goizean Mendaurrera igo ziren eta arratsaldean San Silbestre lasterketa jokatu zuten

ttipi-ttapa

Doneztebeko Erreka Kirol Elkartek zita bikoitza zuen abenduaren 31n, 2007 urteari agurra emateko. Goizean 60 mendizale inguru bildu ziren Autobus Geltokian Mendaur mendia igotzeko, Donezteben ohitura den bezala.

II. SAN SILBESTRE LASTERKETA

Arratsaldean, II. San Silbestre lasterketa doneztebarra egin zen. Joan den urteko arrakasta ikusirik, aurten ezin zen hutsik egin, eta marka berri bat hautsi zen, 91 korrikalari bildu baitziren, gehienak Doneztebe edo inguruko herritakoak. Lau kilometroko ibilbidea izan zuen probak, denak herrian barna. Herrikoia izan zen, eta giro ezin hobea egon zen, jende aunitzekin ibilbide guztian. Irteeran Haizea Er-

kizia doneztebarrari animozko mezu bat igorri zitzaion, orain dela gutti izandako trafiko istripu bategatik errekupe ratzen ari baita. Batzenbakidun dortsala bere izenean gorde zen, eta txalo zaparrada hunkigarria eskaini zitzaion.

Gizonezkoetan bigarrale izan zirela erran daiteke, Alberto Barberena baztandarra eta Rafa Maritxalar lesakarra, biek elkarrekin eta besotik helduta pasatu zutelako helmuga, 12 minutu eta 39 segundoko denborarekin. Aipatzekoa da Rafa Maritxalar lesakarrak goizean Azpeitiko San Silbestre proban parte hartu zuela eta bigarren postua eskuratua zuela. Hirugarrena Patxi Irazoki igantziarra izan zen.

Nesketan, 14 minutu eta 8 segundoko denboran, Cristina Arbués izan zen lehena. Lau minutu geroago Oianko



UTZITAKO ARGAZKIA

Errekako mendizaleek Mendaurko kaxkoan agurtu zuten 2007a. Beheko argazkian San Silbestre lasterketan nesketan sailkatu ziren lehen hiruak.

Garde eta Izaskun Zabaleta sartu ziren.

Proba akitzean, 14 produktu-sorta zozketatu ziren korrikalarien artean.

Eguberrietako zarearen zozketa

Merkatarien elkarteak Eguberrietan egin dako zarearen zozketan 20.980 izan da sari-

tua. Saldias harategian eman zen eta hilaren 20a arte jaso ahal izanen da saria. Bertzela, 11.128 edo 72.534 zenbakientzat izanen da.

Ibon Urtiaga Kalegitua Zabalena 179
fisioterapia zentroa

- Masaje lasaigarria
- Elektroterapia
- Kirol masajea
- Bizkarreko mina
- Kirol eta lan lesioak

Tfno: **948 250 221**
606 266 077

Erletokieta kalea 9 behea. 31007. Iruña

PIKABEA
 harategia • urdaitegia
 janari prestatuak

Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284

ITUREN

Dena prest dago hilaren 24an hasiko diren inauterietarako

Zozketan saritutako zenbakiak jakinarazi ditu Ibintzak

Arkaitz MINDEGIA

Oraindik aste bat gelditzen da inauterietarako baina dagoeneko prestatzen hasiak dira herriko ttikienak. Urtero bezala, ekitaldi ezberdinekin pasako dute urtarrilaren 25a. Goizean ikuskizuna, eta bazkaldu eta gero, eskolan egindako eta etxetik ekarritako mozorroak eta joareak jarri eta herriri itzulia emanen diote. Egunari bukaera emateko txokolatada izanen dute plazan.

Inauteriei buruzko gainerako xehetasunak, berriz, erdiko gehigarrian aurkituko dituzue.

Zozketa

Ibintza Kultur Taldeak 2008ko urtarrilaren 5ean, Errege bezperan, egin zuen Eguberrietako zozketa. Lehenbiziko saria zare eder bat 2.274 zenbakiarentzat izan da (Iturengo Herriko Ostatuan saldua); bigarren saria bizikleta bat 2.412 zenbakiarentzat



ARGAZKIAK: AINARA ETA OIHANA MINDEGIA

Haurrek egunez eta helduek gauez, denek ospatu zuten errege bezpera. Gauez Ituren, Zubieta eta Aurtizko kaleetan joareak astindu eta ohiko bidea egin zuten.

(atera da) eta azkenik, hirugarrena, bi lagunendako afaria Altxu-

nea erretegian 1.315 zenbakiarentzat (Eider ileapaindegian saldua).

Hilabete batean irabazleak ez badira agertzen inautetako kontuak egi-

ten diren egunean berriro zozketatuko dira.

Erasun lehengusuak

Donezteben egindako jaialdian herriko aizkolariek parte hartu zuten. Miel Mindegiaren saioa baino lehen Kearnari Erasunek 45 ontzako bi enbor moztu zituen, eta gero, Garikoitz Larretxea eta Oihan Larretxea lehengusuek, Ander Erasun eta Raul Castroren kontrako apostua jokatu zuten. Hamar kanaerdiko txanda librean moztu behar izan zituzten eta Erasun eta Castro nagusitu ziren. Zorionak!

Eguberrietako Loteria

Abenduaren 22an, 69.200 zenbakiarekin herrira loteriaren zati bat etorri zen. Zati bat Uhar-teko Zubiondo jatetzearan (ituredarrak) gelditu zen eta bertze zatitxo bat Iturengo senide eta lagunentzat.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENTZIA

- Zurich Aseguruek
- Auto, etxebizitza, istripu eta biotza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Nazio eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Enpresa Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria
- Baserritza, botza, plasa, etab... salmenta eta ardurak
- Gestoria

Bilgailuen transferentziak, gidatzeko karmetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago, 15 - ELIZONDO
Tfnoa eta Faxa: 948 580 804
anzabal@anzabal.com

BARR-OSTATVA
MON

ZATOZTE
TRAGOA
EDATERA

ISTANCO - TIBICO DENDA
ANZEN-BORDE
VRDAX - VRDIZVBI

DONEZTEBE

Bordatxoko jabeek kalte ordainen %100 jasoko dute

Aseguruen Partzuergoak eta Gobernuak 1.470.192 euro eman dituzte

ttipi-ttapa

2005eko abenduan ETak Bordatxon leherrazitako bonbak eragindako kalteak %100ean subentzionatuko dituzte Nafarroako Gobernuak eta Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak.

Hasiera batean, kalteak 1.044.739 eurotan baloratu ziren, baina gero, 1.470.192ra igo zen kopurua. Horietatik, Aseguruen Partzuergoak 1.169.492 euro eman ditu eta gainontzekoa Nafarroako Gobernuak, 300.740 euro guztira. Joan den abenduaren 27an onartu zuen Nafarroako Gobernuak ordura bitarte emandako laguntza zabalitzea, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren proposamena onartuz. Hala, Gobernuak hasierako 73.131 eurori berte 227.608 euro gehitu dizkie. Aseguruen Partzuergoak, berriaz, hasieran 971.608



Lehergailuak kalte material haundiak eragin zituen Bordatxo dantzalekuan. ARTXIBOA

euro bideratu zituen kalteak ordaintzera, eta bukaeran berte 197.844 euro eman ditu, 1.169.492 euro guztira.

Horrelako kasuetan, Nafarroako Gobernuari kalte ordainen %80a ordaintzea dagokio, eta Aseguruen Partzuergoak egindako diru sarrearekin Gobernuari da-

gokiona murriztu egin ohi da. Hala dio 254/1988 Foru Dekretuak, baina Gobernuak kasu «bereziatan» laguntza haundiagoa eman dezakeela ere onartzen du Dekretuak. Donezteben Bordatxo dantzalekuaren kontrako leherketa kasu «berezia» dela iritzi diote

Nafarroako Gobernuan, eta ETaren helburua «enpresarien kontrako estortsioa» zela adierazi dute, baita «ETari dirua emateari uko egiteagatik enpresarien ondasunen kontra eraso zietela» ere. Hori horrela dela erranez, erabaki dute kalteak %100ean diruz laguntzea.

MALERREKA

Agenda 21 berriro bilduko da urtarrilaren 22tik aitzinera

Malerrekako Agenda 21ek lanean segitzen du. Herritarren iritzi eta ikuspegia biltzeko, azaro amaierarako deitutako bilerak hagitx parte hartze eskasa izan zuela eta, saikera berri bat egitea adostu dute. Hala, Doneztebeko Erakusketa Aretoan bilduko dira urtarrilaren 22tik aitzinera, 19:00etatik 21:00etara. Egun horretan, ingurumena (mendiak, ura, hondakinak...), lurraldea eta hirigintza izanen dira gogoeta gai; otsailaren 12an kultura, euskara, kirolak, hezkuntza, Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna izanen dituzte hizpide; otsailaren 28an, ekonomia eta tokiko eta eskualdeko kudeaketari buruz ariko dira.

APARAN, S.A.
BIBOLALAI eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 458 080
Fax: 948 460 334
DONEZTEBE

BEHETIK
aulki jasotzaileak

943 372 870

KULTURA

Zabalik Nafarroako Haur kantari jaialdian izena emateko epea

Elizondoko saioa otsailaren 23an izanen da

ttipi-ttapa

Euskal Kantuzaleen Elkartearen ekimenez, laster hasiko da aurtengo Nafarroako Haur Kantari jaialdiaren edizioa. Izen emateko epea zabaldu dute eta otsailaren 8a bitarte egonen da zabalik. Horretarako, elkarteko helbideetan, 948 14 47 06 telefono zenbakian, 948 38 26 58 fax zenbakian eta *nafarroagaraia@kantuzale.net* helbide elektronikoa edo edozein irratia euskaldunetan izen eman daiteke. Gure eskualdean, Xorroxin Irratian eta Leitzako Karrapegin egiten ahal da.

Ikastetxe bakoitzak bi talde, bikote bat eta bakarlarri bat azaldu ditzake eta partaide bakoitzak bi kanta egin ditzake, nahi duen modukoak, kantu zaharra, berria, sortua eta bertze. Euskal Kantuzale Elkartearen gomendioa bi kanta egitea da.

Jaialdien egitarauari dagokionez, lehenbiziko saioa otsailaren 16an egingen da, 18:00etan Tuterako Benjamin de Tudela Institutuan.

Otsailak 23an, 11:00etan, Elizondoko Lur dantzalekuan egi-



ARTXIBOA

Duela bi urteko jaialdian Leitzako taldea Elizondoko Lur Aretoan abesten.

nen da, gure inguruko bakarra.

Martxoaren 1ean, 18:00etan, Antsoaingo Antzokian eta martxoaren 8an, ordu berean, Lekunberriko Udal kiroldegian egingen dira hurrengo bi saioak eta bukaerako saioa, berriz, martxoaren 16an izanen da Iruñeko Gaiarre Antzokian. Saio bakoitzera inguruetako partaideak joan dira eta bukaerako saiora aitzineko saioetan nabarmendutako partaideak gonbidatuko dira.

EUSKARAZ KANTATUZ GOZATZEKO HELBURUA
Euskal Kantuzaleen El-

karte Nafarroan euskaraz abesteko dagoen ohitura aberatsa mantentzea, bultzatzea eta gozatzea helburu dituen erakundea da. Honen eredu diren Nafarroako Euskal Kantu Txapelketa zein Haur Kantari Txapelketa zena, orain Haur Kantari Jaialdia, azkeneko hau haurrei propio bideratutakoa. Duela hamabost urtetik goiti egiten dira Nafarroan.

Haurrekin ari direnez, orain arte txapelketa zena alde batera utzi, eta duela bi urte jaialdiak egiteko erronka hartu zuten Elkartek, kantua ez delako lehiatzeko,

disfrutatzeko baizik. Txapelketak ematen duen presioa kentzea da asmoa, eta abestek ematen duen gozamen hartzea. Tokian tokiko saioetan gozatzea izanen da helburua.

12.000 EUROKO AURREKONTUA

Nafarroako Haur Kantari jaialdien aurtengo aurrekontua 12.000 euro ingurukoa da, eta Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kutzak eta Baztan, Tuterako, Lekunberri, Antsoain eta Iruñeko Udalek babestuta lortu da diru hori.

OIEREGI

Nafarroako Gobernuak izendatu du Oieregiko Kontzejua


Duela hilabete batzuk, NARBARTEN egin bezala, 2007ko bi deialdian, ez maiztean eta ez urrian ere, hauteskundera zerrendarik aurkeztu ez zenez, Nafarroako Gobernuak berak izendatu ditu Oieregiko kontzejuko Kudeaketa Batzordeko kideak. Joan den abenduaren 27an erabaki zituen zein izanen diren Oieregi, Lizaso eta Zabaleko Kontzejuetako arduradunak eta Oieregiren kasuan, erabaki horren arabera, hauek izanen dira batzordea eratu duten arduradun berriak: Alejo Minguea, Mindegia, Juana Paula Galañena Iriarte, Jose Jabier Nosellas Zabalegi, Carlos Zamora Turrillas eta Jose Maria Galarregi Apeztegia.



KAO Sumendiko Sekretua bideojokoaren ZOKKETA
Parte hartzeko, urtarrilaren 22a baino lehen deitu 948 635 458ra
Ordonaigurako euskarazko bideojokoa - 10 urtetik gorako gaztetxoentzat
Eihuyar Fundazioak egina

INAUTERIAK

2008



Leitza
Sunbilla
Ituren • Aurtitz
Zubieta
Bera
Lesaka
Doneztebe
Elizondo


 Etxeko Ardi Gazta
Lizun
 GAZTANDEGIA
 Petxenekoborda - SUNBILLA - Tel: 948 450 862

Marisol
 janaridenda
 Karrika nagusia, 7
 Tfnoa: 948 450 608
 SUNBILLA

JONAGESTA
 ongi pasa inauteak
 Garaguri, 26
 SUNBILLA
 Tfnoa: 470 231 632
 jonagesta@gmail.com

Tel: 948 450 773
 Mugikorra: 619 416 959
 Auloa Baserría - SUNBILLA
 ongi pasa inauteriak
ESPELOSIN
 eraikuntzak

Maria Jesus
 harategia
 Bertako produktuetan espezializatua
 ONGI PASA INAUTERIAK
 Karrika nagusia 11 - SUNBILLA - 948 451 530

FONDA
OSTATUA
 ongi pasa inauteriak!
 DONIBANE KARRIKA - SUNBILLA
 948 450 180




SUNBILLA

urtarrilak 25 ostirala baserriak

- 9:00 ondotik** Herriko gazteek **gosaria** Itturburu ostatuan. 2 taldetan banatu eta **baserrietara** joanen dira, **MODESTO** eta **JOSE ANGEL** akordioilariekin.
- Eguerdian** **Bazkaria** Ixtola baserriean eta Ulibeltza elkarteetan.
- Arratsaldean** Herriko haurrentzako **txokolatada** Ulibeltzak elkarteetan.
- 16:00/18:00** **Musika AGERRALDE**ekin.
- 20:00/22:00** **Dantzaldia AGERRALDE**ekin arkupeetan.
- 21:30** Eskean dabiltzan **gazteen afaria** Itturburu ostatuan.
- Gavean ondotik** **Emakumeen afaria** Ulibeltzak elkarteetan, sorpresa eta **dantzaldia AGERRALDE**ekin.

urtarrilak 26 larunbata karrika

- 10:00** **Gosaria** Itturburu ostatuan.
- Ondotik** Karrikaz karrika **eskean** ibiliko dira **BIXENTE** eta **MODESTO**ekin.
- 14:00** Eskean dabiltzanentzat **bazkaria Fonda** ostatuan.
- 20:00/22:00** **Dantzaldia MODESTO**ekin udaletxeko arkupeetan.
- Gavean** **Afaria Elor-txurin**.



INAUTERIAK 2008



urtarrilak 27 igandea karrozak

- 11:30** **Karrozen desfilea** Beti-Alai txarangarekin, opillak, gaztainak, hezur salda, tortilla eta ardoa banatuko dira ikusleen artean.
- Ondotik** Zerri, bildots eta urdaiazpikoaren **zozketa**.
- 14:30** **Bazkaria** Ulubeltzak elkartean.
- Ondotik** **Dantzaldia Jalisko Band** taldearekin.

ALZUBI MENDI LAN - ESERAKIZIOA

Tel./Fax: 948 450 504
Móvil: 659 867 287
699 461 394
SUNBILLA - NAARRICIA

Kimatze lanak • Zerrakurak • Plantazioak
Ongi pasa inauteriak

IRURI MOTOR

Aukerako autoak
4x4 autoetan modelo guztiak
Salerosketa zerbitzua
Furgonetak
Iruña-Irun errep. zaharra • SUNBILLA
Tfnoa: 948 450 399

ITTURBURU OSTATUA

ongi pasa inauteriak

Nagusia, 23 • SUNBILLA • 948 451 703

eserakizioak
SASOI

ONGI PASA HERRIKO INAUTERIAK!

Tlf.: 948 451 596
Faxa: 948 456 168
Mugikorra: 667 424 635
E-posta: info@sasoi.es
31791- SUNBILLA

Aliprox

Tel: 948 510 007 - 948 510 657
Elbarren, 20-71 ongi pasa ihauterietan!

BIKOITZ
Taberna

- Pintxoak
- Tarta eta opilak
- Pastelak

ONGI PASA IHOTEAK

Elbarren, 16 - LEITZA - Tfnoa: 948 510 072

Sagardotegia Sidreria
ERREKA

Teléfono: 948 510 626
917986 - 94208
LEITZA

ARRARAS
edariak, s.l.

ONGI PASA IHOTEAK

Eluseder industrialdea, 1 - ARESO - 948 61 08 88

PERITZA
TABERNA

LEITZA - 948 610 848
ongi pasa ihoteak eta txintxo ibili

SAGASTI
JATETxea

ongi pasa ihoteak

Elbarren, 98 - LEITZA - 948 610 637

Kafetegia - Gazategia - Okindegia

Ogi agin berria, prentsa
gosari goxo goxo
Pastak, pastelak, tartak

Elbarren, 20 - LEITZA - Tfnoa: 948 510 720

LEITZA
ASESORIA

- Kontabilitatea
- Zergak
- Autorjomoak
- Enpresen sorrerak
- Nominak, kontratuak...
- Autoen transferentzia
- Errenta aitortpenak
- Aholkularitza juridikoa

Landa Int. Suizpi 3 - LEITZA
Tfnoa: 948 510 990 - Faxa: 948 510 429 - Mug: 839 839 312




LEITZA

urtarrilak 26 larunbata eskea

- 14:00** Eskalarien **bazkaria** aurreran doan
- 16:00** **Eskea herriko etxeetan.**
Trikitiari, txistulari akordiolariak,
atxauratuak...
- 00:00** **Kontzertua** Atakabeltza gaztetxean.

urtarrilak 27 igandea atsaure eta gurdien kalejira

- 12:00** **Atsaurek INCANSABLES** Txarangarekin
plazatik aterako dira, **Gurdiak** ohiko lekutik,
industrialdetik.
- 12:00** **Txu-Txu trena** herrian barrena.
- 14:30** Atsauren **Herri bazkaria.**
- 16:00** **Txu-Txu trena** herrian barrena.
- 18:00** **Atsauren kalejira** eskolatik
INCANSABLES txarangarekin.
- 19:00** **Dantzaldia** karrapen
LAIOTZ taldearekin.
- 23:30** **Dantzaldia** karrapen
LAIOTZ taldearekin.
- Ondotik** **Kalejira INCANSABLES** txarangarekin.



INAUTERIAK 2008

urtarrilak 28 astelehena eskea

- 09:00** Baserrietako eskea Goriztaran, Arkixkil, Sakulu eta Errekara puske biltzea, herriko txistulari eta **INCANSABLES txarangarekin.**
- 16:00** Umeentzat ekitaldia Amazabal pilotalekuan.
- 19:00** Dantzaldia karrapen GAU-BELA taldearekin.
- 23:30** Dantzaldia karrapen GAU-BELA taldearekin.
- Ondotik** Kalejira **INCANSABLES txarangarekin.**



urtarrilak 29 asteartea eskea

- 09:30** Baserrietako eskea Erasote auzora.
- 11:30** Umeentzako ekitaldia karrapen.
- 14:30** Bazkaria Aurrera elkarteon.
- 17:00** Ume eta gaztetxoek kalejira **INCANSABLES txarangarekin.**
- 18:00** Txokolatada, buru handiak, trikitilariak plazan. **Ondotik** Goxokiak.
- 18:30** Garai bateko **atsauren** kalejira.
- 19:00** Dantzaldia karrapen **GAU-BELA** taldearekin.
- 23:30** Dantzaldia karrapen **GAU-BELA** taldearekin.
- Ondotik** Kalejira **INCANSABLES txarangarekin.**

Maimur

Herriko Plaza
LEITZA
Tfnoa-Faxa:
948 510 146

• Prentsa - opariak - testu liburuak
• Plastifikatzeak - enkuadernatzeak
• Inprenta lanak - fotokopiak

Pintxoak
Ostatukoak

TXOKO

taberna

ongi pasa Pintxoak

Elbarren, 22 - LEITZA - Tel: 948 510 227

JAI-ALAI

ostatua

Tfnoa 948 510 735 • Faxa: 948 510 736
www.jai-alaia.es • info@jai-alaia.es

MUSNZARA

OSTATUA

- Jatetxea
- Logelak

Ihoteak ongi pasa

Elbarren, 14 • Tel: 948 510 607

LEITZA

LEITZA Garagea

Peugeot Agentzia

Direkzio eta ordenadore bidezko azterketak

Autoen salerosketa

Stihl Agentzia

Landa Industrialdea, 6 • LEITZA
Tfnoa: 948 510 466

ARAKINDEGIA

jattetxea

Menua - Karta
garaien garaiko otorduak

Elbarren, 42 • LEITZA
Tfnoa: 948 510 052 • Faxa: 948 510 633

INAUTERIEETAKO
BIDUOK
DVD
SALGAI

948 45 54 58

Asteburuetan,
besta egundian
eta bezperetan
irekia.

**ALTXUNEA
ERRETEGIA**
ITUREN

INAUTERIEETAN
IREKIA

Tfn: 948 450 418

DISFRACES LA MASCARA

- Inauterietako mozorroetan dirudena daukagu
- Era guztietako osagamen simentu
- Makilari profesionalak

mascara@cin.es
www.lamascara.es
Abejeras, 6 • Tel-Fax: 948 25 00 04 • IRUÑEA

INDEGIA T. 948 451 906
ZURGINDEGIA M. 889 531 012
AURTITZ

Atak - Txitak - Eskalinak - Sukalde mibilek
TEILATURU ZURA - LEIHOAK - KONTRALEIHOAK
ZURGIN LANAK OROKORREAN

ongi pasa leusterrak

**MADERAS
SANTESTEBAN**

ZERRATEGIA

- Mendi lanak (Pinuak erosten dira)
- Bigak
- Teilaturako egiturak
- Osagarriak
- Autoklabe tratamendua
- Montaje obran

ZUBIETA • 948 450 877

ITUREN AURTITZ ZUBIETA



Urtarrilaren 24an Joaldunek eginen duten lehen **puxka biltze** eta **afaria** rekin hasiko dira Inauteak Aurtitz, Ituren eta Zubietan.

Larunbatean izanen dute segida, **afaria** eta **dantzaldia** egiten baita egun horretan.

Igandean, jantzi osoa paratuz lehen **ibilaldia** eginen dute joaldunek karriz karriz.

urtarrilak 28 astelehena

Zubietako joaldunak mozorro eta karrozek lagunduta **Aurtiztarrei bisita** eginen diete, herriari bira eman eta salda beroa hartu ondotik **Iturenera** joanen dira.

Lasagako Zarándia parean, denak elkartu eta herriari buelta emanen diete.

Joaldunek aperitiboa hartzen duten bitartean, plazan karroza ba-koitzak bere ikuskizuna eginen du.

Egverdian 15:30ak aldera, bakoitza bere herrira itzuli eta **bazkaria** izanen dute elkartean.

Gavean ordu tikiak arte **bestak** segituko du.



INAUTERIAK 2008

urtarrilak 29 asteartea

Ituren, Aurtitz eta Lasagako joaldunek bisita bueltatuko diete Zubietarrei.

Urtero-urtero, batzuen ustez natura ernatzeko eta uzta berri eta ugariak emateko egiten den ohiturari eutsiz.





otsailak 3 eta 4
larunbata eta igandea

Kontuen eguna izaten da, hain zuzen, Iñauteetako azkena. Egun horretan ez da joaririk jotzen. **Zubietan** asteakenean egiten dute. Iñauteak akitu eta hurrengo larunbatean egin ohi da Iturenen eta **Aurtizen** igandean. **Iturenen** bazkaria izaten dute Herriko Etxean. Bazkaldu aitzinetik herriko dantzariak bertsolariak eta aizkora apostua izanen dira herriko plazan.

Bazkaldu ondotik dantzaldia izanen da eta, mozkorraldia izugarria ez bada, bederen, bestarekin segitzeko aukera dago, **afari** eta dantzaldian.

Aurtitzen xaharren **afaria** egiten dute eta Iturenen kontuen afaria, iñauteak heldu den urtera arte agurtuz



Herriko Ostatura
ITUREN

Herriko Plazan
848 45 14 30

• Landa etxea 2 ohatzeko 3 logelarekin
ongi pasa Inauteriak

ERRANDONEA
OSTATUA

INAUTERIETAN
GIRO
PAREGABEA

948 450 216 - ZUBIETA

Pitti
ESKABAZIOAK S.L
616 513 491
Ameztieta, 1 - Tel/Faxa: 848 451 468
31740 DONEZTEBE

eskabadora ttikia Herri lanak Hondeaketa

garralatzeko makinaren alokairua

eraihsen eta lur-mugimenduak

EDARRIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

**BORTZIRI
UNSION ANIAK**
Sukalderako altzariak

Berrueta etxea - LESAKA
Tel.: 948 637 266 + 607 228 891 • Fax: 948 637 511

VENTA GORA

**MENUA
KARTA
OSTATUA
KAFETEGIA
OROIGARRIAK
AUTOZERBITZUA**

Ibardingo gaina
Telf.: 0034 - 948 630 729
BERA



BERA

urtarrilak 31 ortzeguna ortzegun gizen

15:45 Ortzegun gizona zingar-arraultze, haurren inudeak eta artzainak, berendua eta musika.

16:30 Kanpanolue haurrentzako dantzaldia kultur etxean




otsailak 2 larunbata kaldereroak

19:00 Kaldereroak Herriko Etxeko Plazatik Altzatera

otsailak 3 igandea inudeak eta artzainak

10:00 Inudeak eta artzainak Herriko karriketan barrena

18:00 Inudeak eta artzainak Altzate karrikan



otsailak 4 astelehena

Goizean Zingar-arraultze
Arratsaldean Mozorro eta gurdiak



INAUTERIAK 2008

LESAKA

urtarrilak 31 ortzeguna
arraultze-arraultze

10:00 Arraultze-arraultze Karriketan barrena.

otsailak 3 igandea
Zaku-zahar

17:00 Zaku-zahar ttikien eta mairuen
kalejira. Betiko ibilbidea.

18:00 Zaku-zaharen kalejira.
Betiko ibilbidea.

19:00 Dantzaldia Plaza Zaharrean.

otsailak 4
astelehena

10:00 Arraultze-arraultze
Fraindarrak, Fraingo Auzoan.

12:30 Inauterietako orgak
Plaza Zaharrean.

19:00 Dantzaldia
Plaza Zaharrean.



PASTELERIA **HAIZEA** BOLLERIA
CAFETERIA
ONGI PASA INAUTERIAK
Tel: 948 638 036
Plaza Zaharra, 7
31170 LESAKA

TALLERES BERRIZAUN
BAGULIBERRA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZUZUAYA
Kalefakzioko gasoila etxera eramaten dugu
Tel: 948 637 460 31170 Lesaka (NAVARRA)

LEGARRA

- EGUNKARIAK
- ALDIZKARIAK
- LIBURUAK
- OPARIAK
- TABAKOA
- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX PUBLIKOA

ONGI PASA INAUTERIAK
Tlnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

besta
tout pour la fête
Estazio karrika, 13 (2 zubien artean)
HENDAIA • 00 33 0559 48 37 58



- Mozorroen alokairu eta salmenta
- Baserritar jantzien aukera zabala
- Mozorro guztietarako osagarriak
- Makilaje profesionalak
- Piroteknia artikulua

AROZENA OSTATUA

Gosariak eta bazkariak

ongi pasa inauteriak

Eguzki Eder, 3 DONEZTEBE Tfnoa:948450443

Belarra Jafetxea
ongi pasa inauteriak
Amezta karrika - DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 306



INSTALACIONES ARKALE c.b.

ongi pasa inauteriak

- Gas instalazioak
- Iturgintza orokorrean
- Kalefakzioa eta Aire egokitua
- Mantenu lanak
- Zintzilikatuta egiten diren lanak

DONEZTEBE - Tfnoa: 610 509 177

IRRINTZE



OSTATUA

AURTENGO
INAUTERIAK UMORE
EDERREAN
PASATU

Merkatarien karrika 28
Telf.: 948 451826

DONEZTEBE

Clinica Dental

Irurita - Rubio

**ODONTOLOGIA
ORTODONTZIA
INPLANTEAK**

Dr. Jose Luis Irujo (Kol.240)
Dr. Bihotze Rubio (Kol. 241)
odontologia medikuak

Rx.panoramikoa - periodontzia
Kirurgia - endodontzia - profesiak

ODONTOPEDIATRIA - PADI

ortopedia maxilarra - umeak eta helduak

Leitza 948 610 713 Doneztebe 948 450 267


DONEZTEBE

urtarrilak 31

ortzeguna

20:00 Poteoa herrian barrena.

21:30 Afaria .



otsailak 1

ortzira
baserriz-baserri

Goizean Gazteak baserriz-baserri
ibiliko dira.

Bitartean Eskolako haurrek karrikaz-karrika
mozorro desfilea egingen dute.

Eguerdian Bazkaria .

Arratsaldean Dantzaldia.

18:00 Poteoa.

otsailak 2

larunbata

Eguerdian Bazkaria.

Arratsaldean Karroza eta
mozorroen desfilea.



INAUTERIAK 2008

ELIZONDO

otsailak 4 astelehena

17:00 **Haurren desfilea** ikastolako parketik abiatuta.

Gauean **Koadrilen afariak** eta parranda.



otsailak 5 asteartea gaia: zirkoa

10:30 **Salda** Merkatuko plazan.

11:15 Zahar Etxera **bisitaldia**.

12:00 **Irteera** Herriko Plazan.

12:15 **Poteoa** Santiago karrikan barrena.

14:30 **Koadrilen bazkariak**.

17:30 **Zirkoaren irteera**.
Poteoa .

19:30 **Su artifizialak** Txokotoko zubitik.
Gero Besta eta parranda...

bar restaurante
TXOKOTO
ostatu jaletxea
Tfnos.: 948 580 348
Braulio Irujo, 25
ELIZONDO

GOIZ-ALDE
ostatua
Rukera zabala kazula, bokata, pintxotan eta menuak
Tel: 948 581 334 - Jaime Urrutia, 8 - ELIZONDO

Merkaopari
DONEZTEBEN - BERAN - ELIZONDON
Tel: 948 580 312

FANTXIKE Origi pastu inauterak!
Mertzeria - Opariak - Lentzeria
HAUR, GAZTE eta HELDUEN ARROPA
Jaime Urrutia, 15 - ELIZONDO

CARNICERIA
Esarte
HARATEGIA
Jaime Urrutia, 35 - ELIZONDO
Tfnos: 948 580 128
ONGI PASA INAUTERIAK



LEITZA

Abian dira berriro ere zine emanaldiak

Inauterien ondotik, otsailaren 8an hasiko dira berriz filmak

Joseba URKIOLA

2008an barneratzea rekin batera eta proiektoreak abendu hasieran eduki zituen arazoak konponduta, 2007/2008 denboraldiko zine emanaldiak berriro ere abian dira. Lehen filma pasa den ostiralean eskaini zuten, Frank Oz zuzendariaren *Un funeral del muerte*. Heldu den asteburuan, berriz, 2007an Espainiar estatuan gehien ikusi zen eta Oscar sari arrakastatsuetan egon daitekeen J.A. Bayonaren *El Orfanato* izanen da ikusgai.

Aipatu, Leitzako eta Tolosa zein Euskal Herri zabaleko inauteririk tarteko, bi asteetako atsedenaldia hartuko dutela emanaldiek eta berriro betiko bi egun eta orduetan (ostirala 22:30ean eta igandea 19:30ean), otsailaren 8ko asteburuan itzuliko direla. Orduan David Cronenbergren *Promesas del este* lan txalotua ikusteko aukera izanen da.

Erregeen etorrerarekin Gabonei agurra

Urtero legez, Ekialde Hurbileko Errege Magoak arduratu ziren ia bi aste iraun duten Gabon jaiei amaiera emateaz. Aurten etxe ugariara poza eta opariak ekartzeaz gain, euria ere beraiekin ekarri zuten, eta Errege Magoak Leitzako karraketan barneratu zirenean, jendeak aterkiekin egon behar izan zuten.

Bestalde, aspaldiko ohitura zaharrari jarraiki, hilaren 4ko gauerdian herritar ugari ibili zen Leitzako kaleetan zintzarriak jotzen. Ohitura honen helburu garrantzitsuenen artean, hirukotearen etorrera iragarri eta espiritu txarrik aldentzea dago.

JAIOTZA UGARI

Gabon Jaietan, Orantzaroaren etorrera eta Ekialde Urruneko Errege Magoen etorreraz gain, protagonismo handikoa hartzen due-



ARGAZKIA: JOSEBA URKIOLA

Ekuadortarren gaua

Abenduaren 29an Leitzako Gizarte Zerbitzu Ek antolatuta, herrian bizi diren ekuadortarren jaialdi interesgarri bat egin zen. Kichwa herri indigenaz leitzarrak zehozter gehixeago ikasteko helburua xede hartuta, hango folklore eta gastronomiaz gozatzeko abagunea izan zuten Karrapera gerturatutakoek. Ekitaldia 17:30ean hasi zen eta bi orduetan, gauza ugari ikusi ahal izan zen. Bolibiar eta ekuadortar batzuek osatutako boskote bat Ande inguruetakoa abestirik ezagun eta garrantzitsuenetakoak plazaratzen aritu zen. Ondoren, Leitzan bizi diren ekuadortar batzuek beren herriko dantza batzuk erakutsi zizkieten leitzarrei. Eta ekitaldiari behar bezalako amaiera emateko, Karrapera gerturatutako guztiek Ekuadorko hainbat jaki eta edari dastatzeko aukera izan zuten.

na jaiotza da. Etxe asko dira antzinako ohitura eta bakoitzak izan ditzakeen sineskera eta ilusioa oinarri, beren istorio partikularra sortzen dutenak. Beti dago zer bait, bestearengandik desberdinduko duena.

Eguberri hauetan, bakoitzak bere etxean eduki duenez gain, lau jaiotza bereizi egon ziren erakusgai. Bi udaltxeko gunek desberdinetan eta beste biak San Migel Parrokian eta Oialde Txokon. Udaltxean

ikusi zirenak Itxaro Lizarraga eta Lorea Arantzeta ama-alabek eginitako eta Orkatz Erbiti gazteak eraturitakoak izan ziren. Lehenek beren lehen esperientzia publikoak zuten eta Belengo herriaren elkartasuna nabarmendu nahi zuten. Orkatzek, aldiz, aurrekoan hasitako ohiturari jarraipena emanez, objektu berezi gisa, menditik ekarritako harri bat azpimarratu zuen.

San Miguel parrokiakoa urteroko bertusa

izan zen, Eguberri eta Urteberri Egunean, nahikoa ikusmin sortarazten duena. Oialde Txokokoa, berriz, 2007an Koxkain taldeak eta Elkarte Katolikoak elkarlanean egin zuten lanaren emaitza. Nabarmendu, hamabostero Iruñetik etorri ziren jaiotza egile jakitun batzuen laguntza eta gomendioekin, pertsona eta gunek asko, buztina eta poliespana bezalako materialekin eskuz eratu zituztela.

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa - saneamendua - gasa
Telefono: 948 510 085 - 948 510 156
Faxa: 948 610 856
LEITZA

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK
Bera - Telefono: 948 630 735 - 407 406 781

GURATZ MENDI ELKARTEAK
LOKAL BERRIRA PASATZEKO 7 BAZKIDE BEHAR DITU.
AZALPENAK TELEFONO HONETAN
696755643

ARESO

Urtarrilaren 22an Leitzan egingen den bilkurara joateko deia egin du Agenda 21ek

Herritarren beharrak aztertzea izanen da helburua

Juana Mari SAIZAR

Agenda 21 aspaldian hasia da lanean gure eskualdean. Udan gure herriko inguruetan inkestak egiten ibili ziren. Orain, Agenda 21k Aresoko herritarrei deialdia egin die, zer nolako beharrak, kexak, iritziak eta abar dituzten adierazteko. Horren harira, ilbeltzaren 15ean, astearte honetan, bilkura bat egitekoa zen eta beraz, 22an egingen da, Leitzako Udaletxean. Herritar guztiak gonbidatuta daude.

Onsalo bikain pilotan

Atzean utzi ditugu hainbat festa eta ospakizun, eta konturatzerako urte berrian sartu gara jada. Pilotari dagokionez, Unai Onsalok Elite mailako txapelketan parte hartu zuen eta finala jokatu ondoren garaile atera zen. Estera bi sarirekin bueltatu zen, batetik txapela eta diruarekin, eta bestetik jokalari onenaren sariarekin. Dagoeneko 22 urte ditu eta gauza ederak dauzka palmare-



ARTXIBOA

Inauteriak atzeratu egin dira aurten

Aurtengo inauteriak, astebebe atzeratuko dira Tolosakoekin batera ez tokatzearren. Hau dela eta, bietaz gozatzeko aukera edukiko dugu. Lagun artea, dagoeneko, hauek antolatzeke bilerak egiten hasia da. Argazkia duela bi urtekoa da, gazteek Olentzeroren bahiketa antzeztu zuteneko.

sean, baina afizionatuetatik profesionaletara salto egiteko konpetentzia handia omen dago, eta ikusi behar. Ea zorte pixka bat daukan eta aukeratutakoen artean tokatzen den, hainbat pelotari profesional ikusten ari gara bere az-

ken agurra eskaintzen frontoietan eta horien tokia nork beteko du? Itxaropena izan behar.

Erregeen bisita

Beste herrietan bezala, errege magoen bisita izan zuten herriko txikiak urtarrilaren

5ean. Hainbat urduritasun, malko eta irri eragin zituzten umeen aurpegiak. Oparien truke muxuak eskatzen zituzten etxe bakoitzean baina, hala ere, batzuen muxurik gabe bueltatu ziren, haurren beldurra zela eta.

ARANO

Argi indar instalazioa berritzeko lanak hasi dituzte

Arketak eta farolak jarriko dira

Kontxi KLABER

Nafarroako Gobernuak 2007ko martxoaren 26an hartutako akordioan, azpiegitura lokalen planaren bigarren luzapena onartu zuen, 2005-2008ko denboraldirako. Beste batzuen artean argi indarraren berrikuntza eta hobekuntza onartu zen Ararorako, 96.382,40 euroko inbertsioa eginez. Obrak hasi dituzte Su-

ron, duela bost urte kablea pasatzeko makarroi lurperatua utzi zuten ia auzo guztian eta orain falta zen zatian sartu dute, arketak jarri eta azkenik farolak. Auzotarrentzat berrikuntza handia izango da hau, orain arte ilunpean egon baita. Benta-berrin ere jarriko dute argia eta azkenik beheko auzoa eta herrian bertan hobekuntzak egingo dira.



ARTXIBOA

Egingo diren berrikuntzekin asko hobetuko da argiztapena herrian.

Kontzeju taberna errentan

Bi urte eta erdi inguru pasa dituzte Emaitz eta Enkarnik Kontzeju

tabernan lanean, baina urtarrila izango dute azken hilabetea. Taberna etxebizitza eta guzti emango da errentan. Otsailean hasteko au-

kera dago, eta baten batak interesa azalduz gero, informazio gehiago jasotzeko dei dezala 948 514045 edo 696 429896 telefonoetara.

GOIZUETA

Lantzeko inauteria irudikatuko da heldu den otsailaren 9an

Herritarren laguntza behar du dantza taldeak horretarako

Esteban AROTZENA

Umore Ona Dantza Taldeak ekimen berezia antolatu du azken urte hauetan *Kontuen Eguna* izenaz ezagutzen den larunbaterako, otsailaren 9rako, alegia.

Nafarroako Lantz herrikako inauteri ezaguna irudikatuko da herrian, beraz, Mielotxin, Ziripot, Zaldiko eta perratzaileak—inauteri horien pertsonaia nagusiak—eta beraiekin batera dantzatuko duten partaideak nagusituko dira herriaz aipatutako egunean. Dena den, Elena Gartzia dantza taldeko monitoreak esan zigunez, festa haundi honen antolakuntza konplexua da eta herritar askoren kolaborazioa ezinbestekoa omen da itxuraz ateratzekoan. Herriko eragileetatik jasotako erantzuna ona izan omen da, eta Gaztetxea eta Guraso Elkarteak, esate baterako, lanean ari omen dira dagoeneko.



ARGAZKIA: MAITANE APEZETXEA

Koroaren emanaldi txukuna

Arrunt arrakastatsua izan zen abenduaren 29an koroak elizan eskaini zuen kontzertua. Jendeak ere erantzun ona eman zuen, eta txalo zaparradaz estimatu zuten bildutakoek herri kantarien lana. Urtezahar ilunabarreko kaleko saioa ere polita atera zen.

Pertsonaiekin batera kalejiran ibili beharko duten dantzarietaz ikastarotxoak eginen da ondorengo hiru larunbatetan. Jende askok eman du izena baina ateak irekiak omen dauzka oraindik parte hartu nahi duen guztiak.

MUTILAK BEHAR DIRA DANTZA TALDEAN

Urte beltzak ahaztutakoan indartsu dago gaur egun Umore Ona Dantza Taldea. 40 kidek eta hiru irakaslek osatzen dute gaur egun. Ttikien taldean neska eta mutikoen arteko ore-

ka egokia omen da, baina helduen taldean mutilak falta dira. Goian aipatutako Elena Gartzia zuzentzen ditu neskek, eta Unai Miranda mutilen zain omen dago lanean hasteko. Bospaseik izena emanen balaute, gaur egun dena bai-

no askoz ederragoa izanen omen litzateke herritarrek hainbeste miresten duten dantza talde hau.

Eski bidaia Jakara

Ilbeltzaren 26 eta 27an Jakara eskiatzera joateko bidaia antolatu du Gazte Asanbladak. Sabiñanigoko alberge batean igaroko dute bidaiariek larunbat arratsa.

Hormigoia emateko dirulaguntzetan aldaketak

Baserri sarreretako bideak hormigonatzeko Udalak ematen duen dirulaguntza eguneratu egin da. Bere horretan zegoen aspaldiko urte hauetan, baina geroztik hormigoia prezioak asko egin du gora. Hala, lehenago metro koadroa 3,80 eurotan bazegoen, orain metro koadroa 8 eurotara igo da.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

<ul style="list-style-type: none"> ☛ Langile autonomoak ☛ Nekazariak eta mendi langileak ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak ☛ Lan-Kontratutarako laguntzak ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea 	<ul style="list-style-type: none"> ☛ Diru-laguntza ezberdinak ☛ Kontabilitateak ☛ IVA eta IRPF ☛ Errenta aitortpenak ☛ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak ☛ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak
--	---

artekari@artekari.com

LESACA: Bititria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

BIZIKLETEN

SALMENTA ETA KONPONKETA

Kanttonberri, 1 • BERA

948 63 12 18

ZUGARRAMURDI

Akelarrea eskainiko dute otsailean Madrilgo Fitur turismo azokan

Abenduaren 14an ETBkoentzat ere Akelarrea antolatu zuten

MARGARI eta KORO

Ekaineko gaupasa egiteari utzi geroztik, herriko antzerki taldeak akelarre antzerkia egiteari ere utzi zion... Joan den abenduaren 14a arte. Gauza da, ETBkoek Zugarramurdiri buruzko programa baten dako akelarre baten irudiak behar zituztela, eta hori nahikoa izan zen jendea animatzeko, eta leze ttikian akelarrea muntatzeko. 12 aktoreen lanarekin, Baztango txalapartarien doinuekin eta Etxotoko akerraren laguntzakin, irudi pulitak ikusi ziren. Baina ez da hori finituko aferra: hurrengo akelarre ikuskizunak Madrilan egingen dituzte otsailaren 2 eta 3an turismo-otzokan.



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

ETBk irudiak behar zituela eta, Akelarrea berreskuratu zuten abenduan.

Filmak Eguberrietan

Museoan dagoen auditorioak ematen duen aukera baliatuz, Guraso Elkarrekin Eguberrietan zine emanaldiak antolatu zituen. Denetara lau pelikula eskaini ziren: *Harry Potter*, *Los*

Simpson, *Beethoven*, eta *Stuart Little*. Arrakasta ona lortu zuten.

Abiadura murrizteko

Autoak abiadura jausteko lurtean paratzen diren bi sakangune jarri dituzte herrian.

Bat Azketako maldan eta bertzea plazako sarreran. Paratzen ari zirela, makina hondatu egin zitzaizen eta lana erdizka utzi dute. Luze gabe jarriko dituzte falta diren bertze biak (bat Martinea aldean eta bertzea Sagardiko parean).

URDAZUBI

Inauguratu dute herriko pilotaleku berria

ttipi-ttapa

Joan den ortziralean, urtarrilak 11, inauguratu zuten Urdazubiko frontoi berria. Ekitaldi formalak izan zen, eta, bertzeak bertze, Nafarroako Gobernu-ko ordezkariak hurbildu ziren, Carlos Ece Nafarroako Gobernu-ko Turismo zuzendari nagusia, Juan Ramon Corpas Kultura eta Turismo kontseilaria eta Fermin Villanueva. Apaizak frontoia bedeinkatu ondotik, aureskua dantzatu zuten eta ondotik bazkaria egin zuten. Lehengo ortziralekoa ekitaldi formalak izan zenez, Udaletik jakinarazi dutenez, denborarekin ekitaldi irekiagoa ere egingen da, hau da, jende gehiagori irekia.

1951tik lantzeria-etxea

Casa Cambra

Tafalla, 13 • IJUÑA • 948 330 834

- albornoak
- mantelak
- edredoi nordikoak
- kuxinak
- ohe estalkiak
- maidireak
- toailak
- edredoi-azal nordikoak

ASTE TXURIA

Otsailaren 15etik aurrera MERKEALDIA

BAZTAN

30.000 euroko superabitarekin itxi du 2007a Elizondoko herriak

20 elizondar elkartu ziren errege egunean egindako batzarrera

ttipi-ttapa

Elizondoko herriak gan den urteko kontuak itxi eta lehendik zituen zorrak kitatuko ditu. Baztango Udalak karrikako salmentari dagokion %50a eta Foru plazan jarritako harmailen errenta oraindik ordaindu gabe daudela kontuan hartuz, positiboan itxiko du Elizondoko herriak gan den urtea. Kobaketak eta ordainketak egin gabe, 30.187 euroko superabita zuen herriak eta Rafael Olaiola alkateak aipatu duenez, «*azkenean gure konpromisoak gauzatzeko eta herria ekonomia normalizatuarekin uzteko modua izanen dugu*».

Errege egunean

egindako batzarrera 20 elizondar baino ez ziren agertu eta hori, kontuak kitatzeko batzarrea izanik, normalean baino ikusmin gehixeago pizten zuela.

Hilerriaren kudeaketa eta mantenimendu lanak esleitu ziren eta, azken bi urteetan bezala, Irache taldeko Cementerios de Navarra enpresak eginen ditu lanak. Herriak urteko 3.900 euro ordaindu beharko ditu, 185 euro lurperatze bakoitzeko eta 380 euro elizako erlojuaren mantenimendurako. Kopuru hauei BEZaren %7a gehitu beharko zaio. Hemendik aitzineira lurperatzearen erdia hildakoaren familiak ordaindu beharko du.



ARTXIBOA

Arraiozko zeharbideko lanak hasteko eskaera

Arraiozko herriaren izenean, Pedro Agerrebere alkateak zeharbidea berritzeko lanak abiatzeko eskatu du, «*gehiegi luzatzen ari direla*» iritzita. Gaur egun obrak geldituak daude eta herritarrek uholdeak ekiditeko neurriak lehenbailehen hartzea nahi dute. Herria ez bitan banatzeko, ibaiari kanal itxia egitea nahi dute, eta hala helarazi diote Ur Konfederazioari eta Udalari.

Beartzungo kuartel zaharraren lurrekin gorabeherak

Espainiako Defentsa Ministerioak bereak ez ziren kuartel zaharraren lurrak saldu omen zituen bere garaian. Elizondoko Beartzun auzoan zegoen Guardia Zibilaren kuartela erortzekotan dago orain, baina bere

lurrak Baztango Udalarenak omen dira eta horiek berreskuratzeko eskatu du orain. Baztango Udalaren arabera, 2004an Defentsa Ministerioak 1.800 metro koadro inguru saldu zizkion partikular bati, eta honek Serkoa SL merkataritza enpresari saldu zizkion, honek apartamentuak eraiki zituzan. Baina erraten de-

nez, 1913ko udal idatzietan Udalak Defentsa Ministerioari lurrak utzi egin zizkiola adierazten da, baina gero ez erabiltzekotan itzultzeko klausula ere onartu omen zen. Horren harira, Udalak lur horiek itzultzeko tramiteak hasi ditu eta erran duenez, ez du apartamentuak egiteko baimenik emanen.

POTTOKI
Bastanberri Plaza, 3 - behea
31700 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfnua: 948 581 983
info@pottoki.com
www.pottoki.com
Astelehenerdik larunbatara
9:30 - 13:30
16:30 - 20:00

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Herrituz auzoa · Tfnua: 948 582 043
ORROZ · MUGAURI

Okindegia **Jatetxea**
Uxoá
OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitatea parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen erre, goxo goxoa!
Ordoki Industriaidea
Tfnua: 948 453 403
31713 ARIZKUN

ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostataua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Bratilo jolaste kamika
ELIZONDO
Tel: 948 581 807 - 948 581 853

BAZTAN

Erdizko harrobiari buruzko herri kontsulta egiteko tramiteek aitzinera segitzen dute

Magnak, bere aldetik, hilabete honetan jakinaraziko du harrobi proiektuarekin segitu ala ez

tti-pi-ttapa

Erdizen harrobia egin bai ala ez. Horixe bera aztertzen ari da Magnesitas Navarra (Magna) enpresa. Baztanen prozesua «*gehiegi*» luzatzen ari delako eta sortu den giroa ikusita, harrobiaren egitasmoa Nafarroako bertze leku batera eramatea aztertzen ari da orain enpresa. Jose Antonio Yeregui Magnako industria arduradunak erran digunez, «*joan den urteko ekainean erantzun bat eskatu genion Baztango Udalari, baina ez da ailegatu. Guk ezin dugu gehiago itxaron eta proiektuak garatzeko lana egin beharra dugu*». Gainera laster erantzunen bat emanen duela ere argitu digu. Dagoneko Erroibar mendialdean, Zilbeti herrian azterketak egiten hasi

Magna baina Yereguren ustetan, «*ez dugu Artesiagakoa bezalako magnesitarik aurkituko, ez kalitatean, ez kopuruan*». Hala ere, uste bat baizik ez omen da hori eta laster izanen omen dute zehatz horren berri. Zilbeti inguruko udalekin harremanetan ere jarriak direla adierazi digu Yeregui, eta ingurumen aldetik proiektua onargarria baldin bada, proiektua ontzat emanen dutela azaldu omen diote. Hala ere, hemendik urte batzuetara berri ere Baztanen saiatuko diren galdetuta zera erran digu Yeregui: «*materiala hor dago eta hori ez daki-gu, nor daki*». Edozein kasutan, oraindik erabaki gabe dago azkekan zer eginen duten Erdizen egin nahi zuten harrobiarekin. Horren



ARTXIBOA

Baztango araudiarekin bat datorren galdeketa tramitatzeko batzordea osatu da alderdi guztietako ordezkariekin eta herrietako bi alkateekin.

berri prentsaurreko baten bidez emanen omen dute.

BAZTANEN HERRI KONTSULTAREN ALDE LANEAN

Bien bitartean, Baztanen bere martxarekin segitzen dute. Amaiur, Arizkun, Oronoz, Irurita eta Berroetako alkate juradoek deitutako erreferendumak ez zuten Baztango Nagusiaren babesik jaso. Dena den, udalbatzarrak proposatutako herri kontsultaren egitasmoa aitzinera doa, eta Baztango Udalaren araudiekin bat datorren galdeketa tramitatzeko batzordea sortu da. Batzorde berri horretan Nabai, UPN eta EAE-ANV alderdietako zinegotziek

eta Almandoz eta Irurita alkate juradoek parte hartuko dute, Luis Rolandek eta Pello Obregonok, hain zuzen. Horrela erabaki zuten Baztango Nagusiaren azken bilkuran.

Euskara bultzatzeko dirulaguntza

Baztanen euskaren normalizazioa lortzeko bidean, hainbat elkarte eta hedabideri dirulaguntza ematea onartu zuen Baztango Udalak abenduaren 28ko bilkuran. Horren arabera, hauek dira laguntza jasoko duten eragileak: Xorroxin irratia (5.959 euro); Xaloea telebista (5.959 euro); Tti-pi-ttapa aldizkaria

(4.609,80 euro); AEK (4.497,36 euro); Etxetik Plazara (1.229,28 euro); Nafarroa Oinez (316,41 euro); Herri Urrats (316,41 euro); Udalbide (7.500 euro) eta Euskal Kantu Txapelketa (900 euro).

Mari Cruz lantzeria erakusleiho lehiaketan saritua

Bertan Baztango Merkatarien Elkarteak Eguberrietan antolatzen duen erakusleiho lehiaketan Mari Cruz lantzeriarena izan da lehen saritua. Horrez gain, Donetzetebeak merkatarien elkarteak antolatutako sariketan ere postu ona lortu du, bigarrena.

Eskisaroi
Jaiak eta...
Jaime Urribia
Tfn: 948 580 013
ELIZONDO

BURKAITZEA
- ostatu
- erretegia
Zugaramundiko bidea, 3 km
948 599 280 - URDAZUBI

ERRETEGIA ORDOKI LIKOREAK
Perrilan egindako haragi eta arrainak
Tel: 948 453 410 Fax: 948 453 378 - ARIZKUN

ITURRALDE
pvc & aluminio

☎ 667 264 025 • 948 581 967
✉ maximo@terra.es

SENPERE

Gratien Adema 'Zaldubi' kalonjeraren idazlanak sakon aztertu ditu Henri Duhau euskaltzaleak

Orotarat, zazpi liburutan 2 200 orrialdeko lana plazaratuko du

Franck DOLOSOR

Dorrisboure familiak ongi zaindu duen altxorra senpertar guziek eta Euskal Herri osoak ezagutzen ahal dute orain Henri Duhau egin duen lanari esker. Badira 100 urte Adema Zaldubi hil zela baina bere idazlanak ongixko daude beti bere ondokoeri esker. Egoera biziki onean atxiki dituzte testu guziak. Horiek lehen aldikotz ikusi zituztelarik ez ziren gutti harritu Henri Duhau eta Elena Touyarou Phagaburu euskaltzaleak. Adema Zaldubiren lan osoak aztertu ditu Duhauk, eta

Touyarouk, euskal irakaslea denak, kalonjeraren biografia plazaratu du Bidegileak sailean.

Joan den abenduaren 21ean, Euskaltzaindiak Senperen egin zuen biltzarrean, orotarat zazpi liburu izanen dituen saileko lehen liburua plazaratu zuen Henri Duhauk. *Euskaltzainak* saileko lehen obra da hau eta ohore handia da senpertar baten lanarekin hastea euskararen akademiak sortu duen argitalpen saila. Lehen liburuan, sekulan agertu ez diren Adema Zaldubiren tes-



Abenduaren 21ean Euskaltzaindiak herrian egindako bilkuran aurkeztu zuen liburua Hendri Duhauk.

ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

tuak daude. Erljio gaiak eta gai profanoak irakurtzen ahal dira. Henri Duhauk dio kalonjerazena bietan ederki moldatzen zela eta azala eta mamia, biak molde berarekin lantzen eta zaintzen zituela. Adema Zaldubiren lanak XIX. mendeko testu ederrenak dira eta horien aztertzeak buru hauste bat baino gehiago sortu dio Duhauri. Adema Zaldubik testuak hobetzen zituen beti eta batzutan

testu beraren hiruzpatalau bertsio daude eta horrek ez du batere erraztu Beskoitzen sortu zen aztertzailearen lana. Dorrisboure familiak Duhauri prestatu dizkion liburuen orrialdeak ez dira batere horitumende batez. Adema Zaldubiren idazkera ikusgarria irakur daiteke. Luma eta tinta dohai haundiarekin baliatu zituen. Erljio eta gai profano testuetan denetatik mintzo da Ade-

ma Zaldubi baina ez du batere bere sorteria aipatzen. Duhauk dio behar bada ahalge zerbait badela hor.

Duhauren lehen liburua aitzi solasa Andres Urrutia euskaltzainburua eta Bilbon notarioa denak izkiriatu du. Urrutiak dio Euskaltzaindiarentzat ez dela ohore tiki ia izan Gratien Adema Zaldubiren lanarekin irekitzea *Euskaltzainak* argitalpen sail berria.



Mari Jose TELLETXEA MARIEZKURRENA

I. URTEMUGA
Ezkurran, 2007/II/03

Azkar joan da denbora zu hemen zinela, baina zure irrifama eta alaitasuna ez ditugu inoiz ahaztuko. Gure etxeetako bizigarri zinen, eta orain zure hutsunea nola bete pentsatzen ari gara, nahiz eta jakin ezin izango dugula inoiz bete. Beti gurekin, gero arte gure Mari Joxe!

ZURE GURASO, SENIDE ETA BESOETAKO.



Unai ETXEPARE ELIZEGI

I. URTEMUGA

Egunero faltan botaz jada joan da urtebete istripu madarikatu hura ez da atera merke nahiz ta oraindik aritu azalpen on baten eske erantzunik ez daukagu; hutsune hau nola bete? bizitzak aurrera darrai horretaz lasai zaitetzke baina gurekin bazeunde zoriontsu ginateteke.

Lesaka. XUAXKO ETA HARITZPEKO FAMILIA

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

KULTURKARI • Andutzeta 12, Etxalar
Tfnoa: 948 63 54 58

SARA

Bi zerrenda lehiatuko dira heldu den martxoko hauteskundeetan

Lehen itzulia martxoaren 9an egingen da eta bigarrena 16an

Xan HARRIAGUE

Battit Laborde eta Jean Aniotzbehere izanen dira heldu den martxoko hauteskundeetarako zerrendaburuak. Lehen itzulia martxoaren 9an egingen da, eta bigarrena ondoko igandean, martxoaren 16an. Hemenetzi laguneko zerrenda aurkezteko otsailaren 22a bitarte izanen dute, eta kanpaina hiru egun beranduago hasiko da.

Azkenekoetan beazala, bi zerrenden arteko nahasketa egiten ahal da herriak 2.500 biztanle baino guttiago baititu. Lehenbiziko itzulian bozkatu dutenen erdia baino boz gehiago es-

kuratzen dituztenek zuzenean hautetsiak izanen dira, gaineratikoek bigarren itzulira joan beharko dute, eta orduan boz gehienak eskuratzen dituztenak pasatuko dira.

Mus txapelketan izen emateko epea bukatzean

Heldu den ortziralean zortzi hasiko da Herriko Etxeko Edantegiko mus txapelketa, urtarrilaren 25ean, alegia. Parte hartu nahi duten bikoteek heldu den igandean arte izanen dute izena emateko, eta horretarako galdetzen diren hamar euroak ordaintzeko aukera.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ez bat eta ez bi, aretxe hirukiak

Hiru aretxe horiek hirukiak dira, eta joan den abenduaren 11n sortu ziren Geroari izeneko ustiapenean. Ugaltze naturalarekin ernaritu zen ama, etxeko zezenarekin, eta hirugarren esnealdia du. Argazkian jabeekin agertzen dira Beñat Azkarraga, Felix Berro eta Jamattit Indartekin. Falta dira Mari-txu eta Antton Andiazabal.

LAGUNTZAK ETA SUBENTZIOAK

Laguntza eta subentzioei buruzko informazioa astero eguneratua www.ttipi.net eta **Ttipi-Ttapa** telebistan ere aurkituko duzu

2008an Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin elkarlanean, gazte boluntarioentzako auzolanaldiak egin nahi dituzten Nafarroako udal eta entitateentzako deialdia onesten duena ebazpena.

Non argitaratua: *NAO 2zk. 2008/01/04 36/2007 EBAZPENA*, abenduaren 13koa, *Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana.*
http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2008/2/Anuncio-7/

Nafarroako Gobernuaren Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) eskuratzeko azterketen egitura eta antolaketa arau-

zuzen dituen Foru Agindua, eta agiri hori eskuratzeko 2008ko apirilko eta iraileko deialdiak onesten dituen Foru Agindua.

Non argitaratua: *NAO 158zk. 2007/12/21 200/2007 FORU AGINDUA, azaroaren 28koa, Hezkuntza kontseilariak emana.*
http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2007/158/Anuncio-6/

Deialdia, Lakuntzako Udalaren zerbitzu anitzetako enplegatu izateko lanpostu bat oposizio bidez betetzeko.

Non argitaratua: *NAO 1zk. 2008/01/02*
http://www.navarra.es/home_eu/Actua-

lidad/BON/Boletines/2008/1/Anuncio-16/

2008.urtean Nafarroako Foru Komunitateko herrietako kontsultategi medikoak eta kontsultategi osagarriak eraiki eta/edo berritzeko dirulaguntzetarako deialdia onesten duen Ebazpena.

Non argitaratua: *NAO 154zk. 2007/12/12 1871/2007 EBAZPENA*, azaroaren 22koa, *Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana.*

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2007/154/Anuncio-10/

Informazioa hau Cederna-Garalur Elkartearen Europe Direct Europari buruzko informazio zerbitzuak emana da. Kontsultatu www.cederna.es webgunea, "laguntzak eta subentzioak" atalean



EZKONTZAK

Ez dago datu berririk.



SORTZEAK

Aitor Sein Irigoien, Doneztebekoa, abenduaren 30ean.

Julen Ubiria Sunsundegi, Lesakakoa, abenduaren 28an.

Alex Saralegi Sagastibeltza, Leitzakoa, abenduaren 18an.

Iker Lanza Gartzia, Sunbillakoa, urtarrilaren 1ean.

Fatima El Haou Eddarhour, NARBARTEKOA, abenduaren 20an.

Iraitz Zelaieta Martirena, Legasakoa, abenduaren 20an.

Francico Javier Berrio Etxeberria, NARBARTEKOA, abenduaren 27an.

Aimar Aller Fernandez, Berakoa, abenduaren 12an.

Noah Ubiria Mendez, Berakoa, abenduaren 20an.

Hegoi Dagerre Aranburu, Berakoa, urtarrilaren 4an.

Urki Ariztegi Bereau, Iturengoa, abenduaren 25ean.



HERIOTZAK

Julian Perurena Almandoz, Goizuetakoa, abenduaren 29an, 66 urte.

Jose Antonio Etxekolonea Indakoe-txea, Zubietakoa, abenduaren 27an, 79 urte.

Teresa Goienetxe Danboriena, Etxalarakoa, ilbeltzaren 2an, 80 urte.

Rosa Altxu Otxandorena, Iturengoa, abenduaren 25ean, 82 urte.

Felix Zubieta Arretxea, Arraiozkua, abenduaren 27an, 96 urte.

Elena Sanzberro Istilart, Elizondokoa, abenduaren 27an, 79 urte,

Domingo Mindegia Garro, Doneztebekoa, abenduaren 28an, 88 urte.

Ana Etxandi Almandoz, Donamariakoa, abenduaren 31n, 99 urte.

Mikela Labaien Lasarte, Leitzakoa, urtarrilaren 1ean, 94 urte.

Laureano Jaurena Dorremotzea, Arizkungoa, urtarrilaren 2an, 81 urte,

M^º Josefa Saldias Arozamena, Elgorriagakoa, urtarrilaren 2an, 77 urte.



Jose Antonio ETXEKOLONEA

Zubietan hil zen 2007ko abenduaren 27an, 79 urte zituela

*Gogorra da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko
baina bizi garen artean
ez zaitugu ahaztuko.*

ZURE FAMILIA

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten eta gure saminarekin bat egin duzue guztiei, eskerrikasko. Doneztebeko Mankomunitateari ere eskerrak egindako lanarengatik.



Xabier ZUBIETA ERKIZIA Luis Mari PIKABEA ZUBIETA Xabier SARALEGI ALTZATE



I. URTAMUGA
Arantza, Bera, Lesaka

*Gailurra edo magala, zein ikusmira zabala
maitatzen segiko zaituztegu, zuek mendia bezala.*

ETXEKOEK.

HERRI KIROLAK

Lau kanako moztuta marka pertsonala egin du Mikel Mindegia

Ordubetean egin zuen lan guztia

ttipi-ttapa

Mikel Mindegia ordu bate, minutu bat eta 49 segundo behar izan zituen lau kanako mozteko, Errege Egunean Donezteben egin zuen marka saiakeran. Ezkurrako aizkolari beterranoak marka pertsonala ezarri nahi zuen 58 urterekin, eta lan bikaina egin zuen.

Doneztebeko pilotalekua ederki girotuta zegoen eta jendeak ez zuen hutsik egin. Guztira 600 lagun bildu ziren, Euskal Herriko txapelketaren finalean bildu zeneren bikoitza. Zale aunitzek ikusi nahi zuen saioa, enborraren tamaina berezia baitzen. Gaurko egunean, lau kanako mozten ez da inolr saiasten eta Donezteben Mindegia marka ederra utzi zuen.

Gripeak jota ibilia zen aitzineko asteetan, eta ez zen baldintzarik onenetan ailegatu saiora. Betiko sasoiaren egon izan balitz denbora hori hobetzeko modua izan luke, seguru aski, baina bere egoera horixe zen eta horrekin aritu behar izan zuen. Plazaratutako lau enborrak onak atera ziren.

Ongi hasi zen lanean, eta 12 minutu eta 47 segundotan bota zuen lehen kanakoa. Bigarrenean, ordea, denbora gehiago pasatu zuen. Lehen kanakoa mozten baino minutu eta 13 segundo gehiago behar izan zituen bigarrenean, eta 14 minututan bota zuen. Hirugarrenean, nabaritu zen ordurarteko lana, eta lehenengoan igarotakoak baino lau minutu eta erdi



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

58 urterekin sasoiko dagoea erakutsi du berriz ere Mindegia.

gehiago behar izan zituen; 17 segundo eta 23 segundotan bota zuen.

Denborarik gehien azkenekoan eman zuen. Marka onena egiteko asmo horrekin erritmoa bizitu zuen; horren ostean betekada hartu zuen, eta erritmoa jautsi behar izan zuen. 17 minutu eta 39 segundotan bota zuen azken enborra. Guztira, beraz, ordu bat, minutu bat eta 49 segundo eman zituen lanak akitzen.

Bukaeran gustura agertu zen Mindegia egindako denborarekin, baina ez zela baldintzarik onenetan aritu onartu zuen: «Astea gripeak jota igaro dut, eta azken egunetan baino hobeto baldin banago ere, oraindik ez nago ongi eta hori nabaritu da. Bestela, denbora gutxiagoan akituko nuela uste dut», erran zuen.

Azken markaren ondotik, Ezkurrakoaren hurrengo erronka Urrezko

Aizkoran Jon Rekondo lagun duela, guttienez final-laurdenetara ailegatzea izanen da.

Beteranoaren aitzinetik, Kenari Erasun gaztetxoak 45 ontzako bi enbor moztu zituen eta gero, Garikoitz eta Oihan Larretxea lehengusuak, Ander Erasun eta Raul Castroren kontra aritu ziren. Hamar kanaerdiko txanda librean moztu zituzten eta Erasun eta Castro nagusitu ziren.

Inaxio Perurenak marka berria ezarri du 290 kiloko harriarekin

Lau onenen artean sailkatu da Perurena II.a

ttipi-ttapa

Saiatu eta lortu. Inaxio Perurena leitzar gazteak marka berria ezarri zuen Urtezahar Egunean Asteasun (Gipuzkoa) 290 kiloko harriarekin. Pilotalekua jendez bete zegoela hobetu zuen Perurena II.ak ordu bitarte 285ean zuen marka. 17 segundo behar izan zituen horretarako. Hala, 23 ur-

terekin 290koa jaso duen bigarren leitzar da orain Inaxio, Miel Saralegirekin batera.

290 kiloko harriarekin hasi aitzinetik, bertze bi altxatu zituen berotzeko, eta horiei bina altxaldi eman. 195ekoaren hasi zen eta gero 220koarekin segitu zuen. Marka berria egiteko prest agertu zen gero. Helburua lortu

arren, guztiz gustura ere ez zen gelditu leitzarra: «zerbait hobeto ere egin nezakeela uste dut», erran zuen. Dena den, kontent egoteko arrazoirik ez zaio falta, lau onenen artean sailkatu baita. Aitzinetik, Miel Saralegi (329 kilo), Iñaki Perurena (320 kilo) eta Iñaki Otaegi *Gibitegi* (300 kilo) daude bera baino kilo gehiago jasota.



ATXIBOA

23 urterekin 290koa jaso duen bigarrena da Inaxio, Saralegirekin batera.

PILOTA

Iñaki Lizaso doneztebarrak jantzi du erremonteko Martiko Torneoko txapela

Urrutia saldiastarrari 35 eta 27 irabazi zion finalean

ttipi-ttapa

Iñaki Lizasorena da Martiko Torneoko azken txapela. Joan den abenduaren 29an jokatu zen finala eta piloteo gogor baten ondotik, 35 eta 27ko emaitzarekin garaitu zuen Migel Mari Urrutia saldiastarra.

Partidako lehen tantoak Urrutiarentzat izan ziren, eta 1 eta 6ko emaitzarekin aitzinean jarri zen saldiastarra. Baina berehala etorri zen Lizasoren erantzuna eta 10 eta 7 aitzinetik jarri zen. Markagailuan 21 eta 7 zela, partida Lizasorentzat izan zen zela argi zegoela uste zenean, berriaz erasoari ekin zion saldiastarrak eta bi tantora hurbildu zitzaion

Doneztebekoari (22-20). Hortik aitzinera, ordea, Urrutiak ez zuen ongi asmatu eta Doneztebera joan zen txapela. Lan txukunaren ondotik, kontent ageri zen Lizaso emaitzarekin eta txapela emazteari eskaini zion. Urrutiak, ordea, sakean ez zuela asmatu adierazi zuen —partidako biak bereak izan ziren—, eta hori bere kalterako izan zela. Gainerakoan, hiru huts egin zituen Lizasok, eta berderatzi Urrutiak.

Bertze erremontista baten buruan, baina Martiko Torneoko txapelak Donezteben segitzen du. 2006an Ezkurra izan zen garaile eta 2005ean Zeberio II.a.



UTZITAKO ARGAZKIA

Lander eta Endika Nafarroako txapeldun

Abenduaren 29an jokatu ziren afizionatuen mailako Nafarroako Erremonte Txapelketako azken partidak eta honetan ere txapela Malerreka etorri zen. Endika Urrutia saldiastarrak eta Lander Erkizia doneztebarrak 40-34 irabazi zieten Doneztebeko Paskual Bertiz eta Xabi Bengoetxea arraiostarrari. Hirugarren eta laugarren postuak, berriz, Abel Domingez (Saldias) eta Aritz (Iruñea) bikotearentzat eta Oskar Urrutia (Saldias) eta Josu Baleztena (Eratsun) bikotearentzat izan ziren, hurrenez hurren. 40-33 irabazi zuten Abelek eta Aritzek.

LIZASO ETA ETXEBERRIA FAUSTINO TXAPELKETAN

Ez da Lizasok aste hauetan eskura dezakeen txapel bakarra izanen. Izan ere, Urrizarekin batera, binakako Faustino txapelketaren finalerako sailkatzea lortu baitu. Ezkurra eta Olazar osaba-iloben kontra

jokatutako finalerdiak hiru partida behar izan zituen. Lehena Kotetok eta Patxik irabazi zuten, baina ondoko biak, aurren erremontean debutatu duen Urrizak eta Lizasok. Finalean bertze doneztebar bat izanen du esperoan gibelego koadroetan Lizasok, txapelketa honetan debuta egin duen Joxe Etxeberria, Altuna lehena-rekin batera.

Finala larunbat honetan jokatzekoa zen, urtarrilaren 12an, baina lerro hauek idazterakoan oraindik ez genuen final nagusi horren emaitzaren berririk.

Aimar Olaizolak irabazi du buruz buruko BBK Mastersa

Txapelarekin batera 18.000 euro jaso ditu goizuetarrak

ttipi-ttapa

Urtea borobiltzeko bertze garaipen eta txapel bat gehiago. Abenduaren 29an jokatu zen BBK Masterseko finala Donostiako Atano III.a pilotalekuan eta Aimar Olaizolak txapelduna dela berretsi zuen.

Patxi Eugi izan zuen aurkari eta honek final

aitzineko partidetan sa-soiko dagoela erakutsi arren, finalean ezin izan zuen deus haundirik egin Olaizola II.aren aitzinean. Partida hasi orduko nabarmendu zen goizuetarra, pilotean zein sakean nahi bezala jokatu baitzuen. Eugik ere ez zuen eutsi eta lanean segitu zuen baina sei

tantorekin bukatu zuen finala. Azkenean, 22 eta 6ko markagailuarekin, Olaizolak txapelaz gain, 18.000 euroko saria jaso zuen, torneoaren aurkeztu zutenetik guztien ahotan ibili den saria, hain zuzen. Agoitzeko azpitxapeldunak, berriz, 12.000 euro jaso zituen.



ARTXIBOA

Aimar Olaizola Barriolaren aurka buruz buruko txapela jantzi zuenean.

PILOTA

82 pilotarirekin bukatu da Baztango pilota txapelketaren XXVI. edizioa

Finalak abenduaren 22an jokatu ziren Elizondon

ttipi-ttapa

Baztango 26. Pilota Txapelketaren finalak jokatu ziren abenduaren 22an Elizondoko pilotalekuan. Guztira 82 pilotarik parte hartu zuten, umeen mailatik hasi eta gazteen mailara bitarte eta finalari dagokionean hauek izan ziren emaitzak.

Umeak B mailan, Ander Jaurena eta Ibon Irazokik 18 eta 17 irabazi zieten David Suarez eta Pello Oskozi.

Umeak A mailan, Julen Larretxea eta Iker Espelosinentzat izan zen garaipena, Andoni Gaskue eta Pello Etxeberriari 18 eta 14 irabazita.

Kimuak A mailan, Iñaki Irazoki eta Mattin Asiain bikoteak 18 eta



ARGAZKIA: MENA

Baztango txapelketaren edizio honetan parte hartu duten pilotari batzuk.

7 garaitu zuten Imanol Azpiroz eta Sergio oskoz bikotea.

Kimuak A mailan Beñat Etxekolonea eta Iñaki Azpirozek 18 eta 14 irabazi zieten Pello

Arretxea eta David Albiasuri.

Haurren mailan, Xabier Apezetxea eta Arkaitz Untxalok 7rekin utzi zituzten Ugaitz Elizalde eta Iban Inda.

Kadeteetan, Irail Zestau eta Joseba Arizmendirentzat izan zen garaipena, 18 eta 9 irabazi baitzieten Mattin Apezetxea eta Joseba Apeztegiari.

Gazteen mailan, azkenik, buruz buru aritu ziren Imanol Goienetxe igantziarra eta Oier Bereau iturendarra. Azken honek 18 eta 17 irabazi zion Goienetxeri.

Abian da Malerrekako VI. eskuz binakako pilota txapelketa

Final guztiak martxoaren 8an jokatu dira Donezteben

ttipi-ttapa

Joan den urtarrilaren 9an abiatuko zen Erreka elkarteak seigarren aldiz antolatutako Malerrekako eskuz binakako pilota txapelketa. Doneztebe eta Berako pilotalekuan, bigarren mailako senior kategoriarako final zortzirenetako kanporaketa jokatu

hasi zen aurtengo edizioa. Bigarren mailako seniorren ondotik, jubenil eta kadete mailako pilotariek hasi ziren joan den igandean, urtarrilaren 13an. Kadete mailako final zortzirenetako partidak, berriz, Legasako pilotalekuan jokatu ziren, egun berean.



ARTXIBOA

Iaz bezala, aurtun ere pilotari aunitzek parte hartuko du txapelketa honetan.

Elite mailako seniorrak asteazken honetan, urtarrilaren 16an, jokatzeok dituzte lehen jardunaldiak Donezteben eta Beran; Infantil

mailako txapelketa urtarrilaren 20an abiatuko da Legasan eta alebin eta benjamin mailakoak urtarrilaren 27an Legasan eta Urrotzen.

Kategoria ezberdinak egun diferentetan hasi arren, finalak egun berean, martxoak 8, jokatu dira, goiz eta arratsalde, Donezteben..

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

IKASTAROAK

ELIZONDO

Urtarrilaren 21ean, Zure argazki bilduma sortu izeneko ikastaroa, Eskiz informatika zerbitzuak antolatuta. 10:00etatik 12:00etara. Matrikula: 2 euro. Gehienezko ikasle kopurua 12koa.

Urtarrilaren 22an eta 23an, Sortu zure MP3a ikastaroa, Eskiz informatika zerbitzuak antolatuta. 10:00etatik 12:00etara. Matrikula: 5 euro. Gehienezko ikasle kopurua 12koa.

Urtarrilaren 24an, Sukaldaritza Internet bidez ikastaroa, Eskiz informatika zerbitzuak antolatuta. 10:00etatik 12:00etara. Matrikula: 2 euro. Ikasle kopurua 12.

Urtarrilaren 24an, Zure bidaiak prestatu ikastaroa, Eskiz informatika zerbitzuak antolatuta. 10:00etatik 12:00etara. Matrikula: 2 euro. Ikasle kopurua: 12.

INAUTERIAK

ARANTZA

Urtarrilaren 17tik 19ra, inauteriak. Xehetasunak 12. orrialdean.

IGANTZI

Urtarrilaren 25ean eta 26an, inauteriak. 13. orrialdean.

SUNBILLA

Urtarrilaren 25etik 27ra, inauteriak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

AURTITZ-ITUREN-ZUBIETA

Urtarrilaren 24, 26, 27,28,29,30 eta otsailaren 2an eta 3an, inauteriak. Xehetasunak gehigarrian.

LEITZA

Urtarrilaren 25etik 28ra, inauteriak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

TELEBISTAKO TXOKOA




Joaldun, mozorro eta karroza besta ttipi-ttapa telebistan

HASI DIRA INAUTERIAK

Aurten aitzineko urteetan baino goizago, baina hasi dira inauteriak. Ofizialki otsailaren lehenbiziko asteburuan egingen badira ere, Erregeak pasatu eta segituan ailegatzen da eskualdera mozorro, karroza, joaldun eta atsoguratuak besta. Hala, Orabidean eta Eratsunen dagoeneko eginak dituzte. Orain, ordea, **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK** biltzen dituen herrien txanda dator: Arantzako mozorroak, Igantzi, Ituren, Aurtitz eta Zubietako joaldunak, Sunbillako karroza ikusgarriak eta Leitzako atsoguratuak, bertzeak bertze. Asteburu honetan, Arantzako mozorro zuriak izanen dira protagonista.

Etxez etxe eta baserriz baserri ibiliko dira ortzegun honetatik aitzinera. Aurten gainera, estreinakoz bertsolariekin ibiliko dira. Kirol ikuskizunik ere ez da faltako eta horren guztiaren berri jasoko dute telebistako gure lankideek. Hurrengo asteburuan, berriz, herri andanak hartuko du lekukoa: Sunbilla, Igantzi, Aurtitz, Ituren eta Zubietara... Horietan guztietan egonen da **TTIPI-TTAPA TELEBISTA**. Otsaileko lehenbiziko asteburuan, berriz, Bera, Lesaka eta Doneztebeko inauteriak izanen dira. Besta giro horiek ere hurbil-hurbiletik jarraituko dituzte telebistako kazetari zein kamara operadoreek.

DISKAK



KEN ZAZPI

ARGIAK

OIHUKA, 2007

Hiru dira talde iraunkor eta ezinbertzeko baten oinarriak: kantu eraginkorrak, interpretazio bikainak eta soinu-produkzio sistema egokien erabilpena. Ken Zazpi taldeak honetan ere kantu sarkorrak, lelo disdiratsuak eta mezu konprometitatuak sortu ditu. *Argiak* izenburua daraman bere laugarren lan honek berezitasun handi bat dakar: mundu mailako ekoizlerik ezagunetarikoen eskuetan utzi dutela diskoaren produkzioa: Los Angeles herrian estudioa duen Rafa Sardina bermeotarra izan da diskoaren soinu paregabearen arduraduna (www.rafasardina.com). 12 abestiz osatu dute lan berria, eta «*kantu argitsuak, sentimendu sotilak eta prozedura profesionalak erruz batzen dira, beraientzat nahiz euskal musikarentzat etorkizun oparoa iragarri*».

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA** (abenduarren 7tik 14ra bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 36,00 € (+11,00)

Zerri gizena
0,945 € kilo. (+0,030)

Zerramak:
0,290€ Kg/bizirik. (=)



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,10 (=)

1.koa 3,79 (=)
2.koa 3,26 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,22 (=)
1.koa 3,91 (=)
2.koa 3,36 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 140,00 (=)
idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 110,00 (=)
idixkoak 145,00 (=)
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,08/3,18
Zaldi-behorrak: 1,73/1,93
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 7,40/7,90
8-10 kilokoak: 5,70 /5,90

JAKIN BEHARREKOAK

Urtetik urtera erreklamazio kopurua gero eta altuagoa da

Irache Kontsumitzaileen Elkarteak egindako balorazioa da

Irache Nafarroako kontsumitzaile elkar- teak kontsumitzailea- ren harira, inkesta bat aurkeztu zitue, kontsumitzaileek ikusten dituzten arazoak isla- tuz. CIES enpresak egin du inkesta eta Nafarroako Foru Er- kidego osoan egin- dako 400 elkarriketa biltzen dira. Kontsumitzaileek dituzten kezka larrienak, egi- ten dituzten kexak, sektore ezberdinetako balorazioak, konfi- dantza eskaintzen du- ten produktuak eta abar ageri dira.

Datu aunitz ageri dira CIESeK eginda- ko ikerketan, baina adierazgarria izan dai- tekeen alorra, balite- ke erreklamazioen ko- purua izatea. 2006an erreklamazioen bat egin ote zuten galde- tuta, elkarriketatuta- koetatik %26ak azal- du du baietz, hau da, 2006an erreklama-



Irache Kontsumitzaile Elkarteak jakinarazi due- nez, %26 igo zen erreklamazio kopurua 2005etik 2006ra bitartean.

zioren bat egin zute- la, 130.000 lagunek guztira. Igoera Iruñe- an antzeman da ba- tez ere, %34arekin, eta 30 eta 45 urte ar- teko pertsonetan %36an. Inkestaren arabera, Unibertsitate ikasketak dituztenak dira gehien kexatzen direnak, %47, hain zu- zen.

2005. urtean kon- tsumitzaileen %17ak erreklamazioen bat aurkeztu zuen. Hortik ondorioztatu daiteke, 2006an bederatzu puntutan areagotu de- la kopuru hori, eta ha- la, %26ak egin du erreklamazioen bat. 83.000 biztanle izate- tik 130.000ra igaro ga- ra.

TELEFONIA ZERBITZUAN KEXA GEHIEN

Telefonia da erre- klamazio gehien jaso duen sektorea, %39arekin eta ber- teekiko alde haun- diarekin. Telefoniaren ondotik alor ezberdi- nak daude, hala nola: osasuna %14, admi- nistrazioa %13, etxe- bizona %12 eta ban- ku eta kutzak %11. Gainerako sektoreek aunitzez ere kexa gu- ttiago jasotzen dituz- te. Baldintzak ez be- tetzea da erreklama- zioen zergati nagus- iena %36an, ondo- tik epeak ez betetzea %22an eta segidan heldu dira prezioa eta kalitatea.

Telefonia, admi- nistrazioa eta etxebi- zita gaietan hitzartu- tako baldintzak eta prezioa izaten dira erreklamazio nagus- ienak eta osasun ar- loan epeak %74an.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

MENDI IRTEERAK

LESAKA

Urtarrilaren 20an, San Antonera mendialde antolatuta du Beti Gaztek elkarteak. Hitzordua: 8:00etan Plaza Zaharrean.

LEHIAKETAK

BAZTAN

Urtarrilaren 18an, Baztandarren Biltzarrak antolatutako bertso paper, ipuin, gutun eta piropo lehiaketan sari banaketa Arizkunenean, 19:00etan.

KONTZERTUAK

LESAKA

Urtarrilaren 20an, Egan taldearekin dantzaldia Plaza Zaharrean, 18:30ean.

BERA

Urtarrilaren 23an, tronpeta, perkusio eta txistu saioa Musika eskolan, 17:00etan.

ANTZERKIA

BERA

Urtarrilaren 26an, *Ni sin ti ni contigo, trilogia del humor* umorezko antzerkia, 19:00etan Kultur Etxean.

ZINEA

LEITZA

Urtarrilaren 18an eta 20an, J.A. Bayonaren *El Orfanato* filma ikusgai. Ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean.

HITZALDIA

ELIZONDO

Urtarrilaren 25an, *Euskara eta Nafarroa: diskrimina- zioaren kudeaketa* gaiari buruzko hitzaldia eskainiko du Julen Urbiolak, 20:00etan Arizkunenean.

LIBURUAK



Etxearen negarra

Felipe JUARISTI

ELKAR, 2007

Ez da beti erraza izaten etxe bat eskuratzea bizitzeko. Etxez aldatzea bizitzaren proiektu berri bat hastea izaten da. Edelmirok, mutil gazte gehienek bezala, kezka bat du buruan; kezka batek, ordea, ilusio bat gordetzen du bere baitan sari askotan. Elisa izena du Edelmiroren kezka, eta ilusioak. Elisa emakumea da, argia, burutsua, eta fundamentu haundia dauka; alegia, kezka aunitz sortzeko abilitzadea. Kanda da Elisaren ama, eta Edel-

miroren buruhaustea. Barruan esateko zeukan guztia kontatu du *Ez da gaua begietara etortzen* bertze nobelan, iraganeko zauriak itxi ditu hala, eta etapa berri bati ekin *Etxearen negarra* umorezkoa eleberriarekin. Tragikotasunaren eta umorearen artean oreka aurkitu du. Badira negar egi- ten duten etxeak, maiteminda daudelako barruan bizi den jendeaz. Horrelako istorioa kontatzen du Juaristik ele- berri honetan.

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8€ ordaindu behar da. Ttipi-Ttapa telebistan eta www.ttipi.net-en ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin).
8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIZAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartitua
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ADOS

ELIZONDO.
- 2. eskuko pisuak eta pisu berriak salgai.
DONEZTEBE.
- 2. eskuko pisuak eta pisu berriak salgai.
BERA-LESACA.
- 2. eskuko pisuak salgai.
NARBARTE.
- 2. eskuko pisuak salgai.
DONEZTEBE INGURUKO HERRIETAN.
- Pisuak, apartamentuak eta lur eremuak salgai.
BAZTAN-BIDASOA.
- Bordak, baserriak eta herriko etxeak salgai. Moldatauak eta zaharberri beharreak.

PROMOZIO BERRIAK. GARTZAIN.
- Familia bakarreko bi etxebizitza, 600 m²ko lur eremuarekin.
ARIZKUN.
- 2 eratako familia bakarreko etxebizitza lur eremuarekin.
IRAIZOTZ.
- Pisu berriak lorategiarekin edo terrazarekin, trastelekua eta aparkalekua.
AGOITZ.
- Familia bakarreko 20 etxebizitza, lur eremuarekin.
ARIZKUN.
- Nabe eta lur eremu industrialak salgai.
ORONAZ-MUGAIRI.
- Bi familiako etxebizitza lur eremuarekin.

INFORMA ZAITEZ!
948 451 841 / 948580705
www.ados-inmobiliaria.com

ETXEBIZITZAK

101 Saldu
LESAKA. 229 m²ko familia bakarreko etxearen proiektua, lurarekin eta lizentziarik salgai. Eremu urbanizatua ura, argia, urzikinen putzua... Promotore bat interesatua egonez gero, permuterako prest. 45 milioi. ☎678526091.



IRUN. 87m²ko pisua salgai, 3 logela, 2 bainugela, trastelekua eta garajea. Mobleztatua. Igogailuarekin. Prezio interesgarria. ☎629032752.

ZUGARRAMURDI. Bifamiliarentzako etxebizitza salgai,

ANZABAL INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.
- Eskaintzagarriak baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI.
- Baserria salgai 50.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurarekin salgai.
Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

andueza

NARBARTE.
- 2000 m²ko lur eremuko 2000 m²ko lur eremuko 20.000.000€
Lur eremuarekin 2.000 m²ko lur eremuko 20.000.000€
Arantza, 30 hekt. - 1000 m²ko lur eremuko 400€
GAZTELAN.
- 1000 m²ko lur eremuko 40.000.000€
DONEZTEBE.
- 1000 m²ko lur eremuko 40.000.000€
ORONAZ.
- 1000 m²ko lur eremuko 40.000.000€
ELIZONDO.
- 1000 m²ko lur eremuko 40.000.000€
Arantza, 4 hekt. - 1000 m²ko lur eremuko 400€
BASERRIAK ERE SALGAI

T. 948 23 88 18
M. 620 20 87 87
www.habla24.com/andueza

bakoitza 170m²koa. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela-jangela, itxitako



Baztango

promoción inmobiliaria

PROMOZIO BERRIAK:
IRURITA: 1, 2 eta 3 logeletako etxebizitzaren promozioa egiten da laster, gurtza eraberrituko erakinean, lur eremu pribatuarekin eta igogailuarekin.
IRURITA: Familia bakarreko etxebizitza berria, lorategiarekin. Diseinu pertsonalizaturako aukera.
BERA: Zaharberritutako eraikin tradizionalan, 2 eta 3 logeletako etxebizitza, igogailuarekin. Laster ematen dira.
DONEZTEBE: 1, 2 eta 3 logeletako etxebizitzaren promozioa egiten da laster, eraberritutako erakinean. Erreserbatzeko zerrenda irekia.

Kattonberri karrika, 4
31780 Bera. Navarra

Tfn. 948 630552
Faxa 948 630106

BULDAIN

INMOBILIARIA

Leiztan:
- Arantza herriko etxebizitza berria
- 1000 m²ko lur eremuko 20.000.000€
- Pisu Arantza herriko etxebizitza salgai
20.000.000€
Arantza, 37 hekt. - 1000 m²ko lur eremuko 400€
Tfn 948 510 554 - 948 410 615

garajea. 600m²ko lorategia. 295.000 euro. ☎615 744433.

LESAKA. 110m²ko etxebizitza salgai, Bittirian. Bista onak eta prezio negoziagarria. ☎670 319380/ 607 769519/ 948 637347.

NARBARTE- LEGASA. Etxea (280m²) eta lur eremu ederra (5.500m²) salgai NARBARTE eta Legasa artean 88 milioi pza. ☎626 128475.



IRUÑA. Pisu mobleztatua errentan emateko. 2 logela, komuna, egongela eta sukalde ekipatua bizitzaren jartzeko. Garajea eta autobus-garalekua. Buztintxuri ingurua. ☎637 136542/ 689 950350.

ELIZONDO ondoan behelko solairuan dagoen 118m²ko pisua salgai. Mobleztatua eta sukalde montatua. Aukera ona. ☎670410556.

ETXEBIZITZAK

109 Errentan eman

ANTSOAIN. Lapurbide kaletan logela bat errentan emateko. ☎619 927459.

DONEZTEBE. Pisu errentan emateko. 2 logela, sukalde-egongela, 2 komun, igogailua eta trastelekua. ☎646 782890.

GARAJEAK/LOKALAK

107 Saldu

LESAKA. 20m²ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

DONEZTEBE. 80m²ko haurerentzako arropa denda salgai, errentan emateko aukerarekin. ☎669 266194.

ZERBITZUAK

205 Zurginak

ARANTZA

Zurgindegia.....

Klasa gutxiatiko zurgin lanak
Eskatu zurgindegia
konpromisoa gabe

Jose Miguel Gualandrea
Tel: 948 674 018 - 447 818 114
Sancti Spiritu - 48103

LANA

301 Eskariak

BAZTAN-MALERREKA. Elizondoko mutil batek igeltsero obra tikiak egiten lituzke asteburuetan, Baztan-Malerreka inguruan. ☎680461631.

BORDA
PLADUR LANAK

ISOLAMENDUAK
DEKORAZIOA
ERABERRITZEAK
SABAI MODULARRA

Numero 47-8 (23444)
boradaplador@telefonos.net
Tlfono/Fax: 948 637 546
Rug. 1. 509 477 377

Emakume bat sukaldari laguntzaile lanetan edo berzte lanetan ariko litzateke. Esperientziaduna. ☎620 455281.

LANA 302 Eskaintzak

BERRIOZAR. Frutategi batean 3 emakume behar dira: 2 lanaldi osoa egiteko eta bertzea lanaldi erdirako, jendearen aitzinean esperientziadunak. ☎948 451971 (16:00etatik 20:00etara)

BORTZIRIAK. Igeltsero peoiak behar dira Bortziri inguruan lan egiteko. ☎600386897 (18:00etatik aitzinera).

LEGASA. Arotxa jatetxean zerbitzari euskalduna behar da asteburuetan lan egiteko. ☎948 456100.

ZUGARRAMURDI. Pertsona bat behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko, astelehenetik ortziralera, 7:00etatik 15:30era (ordutegi negoziagarria). ☎652 757774.

MOTORRA 501 Salerosketak

Golf TDI autoa salgai, 2000. urteko azarokoa, aire-klimatizagailua, CD irakurgailua... Egoera onean. ☎620 249262.

Wolsvagen transporter furgoneta salgai, lo egite-

ko eta bizikleta eramateko prestatua. 9 urte. NA-AW. ☎662 333787.

Opel Astra familiarra salgai. NA-AT. ☎689 531012.

Fiat Ulysse monobolumena salgai, 60.000 kilometro, gasolina, 2003koa. Egoera onean. ☎667 237191.

Terrano 2.7 TDI salgai. 2001ekoa, 56.000 kilometroekin eta engantxearekin. ☎670 251632.

Remolkea salgai, freno, toldoa eta arkilarekin. ☎948451622/639 439509.

Galopper Super Exceed mendiko autoa salgai, 2003koa, CCF matrikuladuna. Aire egokitua E.E., C.C., direkzio lagundua. 75.000 kilometro. Egoera ezin hobean. ☎617 147080.



Suzuki Samurai 1.3l salgai, NA-AV. Egoera onean. ☎649 874302.

MOTORRA 502 Tailerrak

TALLERES SANTESTEBAN
948 450282 • DONEZTEBE

AUTO IA BERRIETAN
ESKAINNTZA ZABALA
(6-12 hilabetekoak)
Clio, Modus, Kangoo, Megane, Megane Grand Tour, Scenic, Laguna, Laguna Grand Tour, Espace.

BIGAREN ESKUKOAK
Volkswagen Golf 1.9 DTI 110 CV, Laguna Grand Tour Privilege 2.2 DCI, Citroen Saxo 1.9 D, Opel Corsa, Renault Laguna 2.2 D, Clio Campus 1.5 DCI, Peugeot 406, Megane II 1.5 DCI 100 CV, Clio Confort 1.5 DCI.

RENAULT BERAUTO
Tel: 948630621
HILABETEKO ESKAINNTZA

Renault laguna III
Berri berria, 0 k.m-ekin
3000€ko aurreratze

BAITA ERE

Kangoo 4x4	2005
Megane 5 ate	2007
Clio campus	2007
Scenic 1.5dci	2007
Space 1.9 dci	2006

GANIX
TAILERRA

Itxigabeko mekanika
eta elektrizitate

BERA FIAT zerbitzua

Indurdieta, 1 - Tel: 948 630 647

MENDAUR MOTOR

948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko autoak:
Mitsubishi DID 3 ate automatikoa eta manuala, Mitsubishi Intense 3 ate, Vitara 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 5 ate, Opel Zafira, Terrano II 3 ate, Opel Frontera 3-5 ate, Galopper 3-5 ate, Galopper Super Exceed 3 ate, Montero IO 5 ate, Ibiza, Seat Inca, Almera, Fiat Doblo, Nissan Navara, Frontera 3-5 ate, Suzuki Jimmy, Seat Leon eta Kia.
SUZUKIAK ETA VITARAUK AUKERAN

ANIMALIAK 601 Emateko

2 hilabeteko **txakurkumea** oparitzeko. Artzain txakur eta Collie arrazen nahasketak. ☎652 729101.

Txakurkumea oparitzeko. ☎629 235251.

ANIMALIAK 602 Salerosketak

Zezena salgai, 5 urtekoa eta limusina arrazakoa, bere karta eta guzti. ☎686 927911.

120 kilo inguruko 2 zeri salgai. ☎948 634062.

BERA. 20 ardi mutur gorri emari salgai. ☎948 631032. Border Collye arrazako **txakurkumeak** salgai. ☎616 837452.

DENETARIK 702 Salerosketak

BORTZIRIETAKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

31760 ETXALAR

FAMILIA LANGILEEN ORDEZKAPENAK EGITEKO LAN POLTSA OSATZEKO DEIALDIA.

Bortzirieta Giza Zerbitzuen Mankomunitateak familia langileen lan-poltsa osatu nahi du etxeko zerbitzuen ordezkapenak egiteko.

Baldintzak:
- Gidatzeko baimena eta kotxea izan.
- Euskalduna.

Kontutan hartuko dira egindako ikastaroak eta lan esperientzia.

Deialdian parte hartzeko eskaera eta kurrikuluma aurkeztu beharko dira urtarilaren 31ko eguerdiko 12ak baino lehen Mankomunitateko bulegoetan, Etxalarren.

Etxalarren, 2007ko abenduaren 19an.

Presidentea,
Patxiku Irisarri Elizagoien

Bigarren eskuko **bizikleta erosiko nuke**, 10-12 urteko neska batentzat. ☎948 450056.

Idi uztarrria, zinta eta kapa erosiko nituzke. ☎677822248.

1.200 **teila gorri** (Romane gelis) eta 39 teila gorri (canal) berriak eta erabili gabekoak salgai, 1.200 eurotan, negozioagarria. 10 **erradiadore** berotzeko, fulezko **kaldera** eta 500 litrorentzako **depositoa** salgai, 350 eurotan. ☎(0033) 677402203.

ttipi
tapa

www.ttipi.net
info@ttipi.net

☎ (0034) 948635458

ZOANSA

SEAT
VW
HYUNDAI
ALFA

ZOANSA

MARKA GUZTIEN KONPONKETA

Banarta, 2 - Alkaiaga industrialdea
LESACA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Fax: 948 625 505

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,31€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



YAIZA GONZALEZ GAMIO gazteluarak 4 urte bete ditu urtarilaren 13an. Aunitz urtez eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Gazteluko **YAIZA GONZALEZ GAMIOK** 4 urte bete ditu urtarilaren 13an. Zorionak eta muxu aunitz familiaren partetik.



Iruritako **ARITZ BIKONDO ARRETXEAK** 3 urte bete ditu urtarilaren 7an. Zorionak eta muxu haundi bat aita, ama eta bere arba Uxueren partetik, eta Iruritako familien partetik.



IZARO LARRAIOZ ALTZURIRI ibeltzaren 14an 2 urte bete dituelako, aunitz urtez attatto, amatto, Bixkor totto, txuxa eta beenen partetik. Muxuk bitxa ttikia.



IZARO LARRAIOZ ALTZURIRI ibeltzaren 14an 2 urte bete dituelako, aunitz urtez pottoki Arantzako, Urrozko, Oizko eta Donostiako familien partetik.



JANIRE LEKUONA HUIZI lesakarrak 2 urte beteko ditu urtarilaren 26an. Aunitz urtez etxeko printzesitari atta eta amaren partetik.



JANIRE LEKUONA HUIZI lesakarra. Urtarilaren 26an 2 urte beteko ditu sorgin ttikiak. Zorionak eta muxu aunitz familiaren partetik.



JOKIN HUICI PRANADOS eta **JANIRE LEKUONA HUICI** osaba-lobak 11 eta 2 urte beteko dituzte urtarilaren 9an eta 26an. Aunitz urtez familiaren partetik. Muxu haundi bana.



Arantzako **OIHAN MAIZ FERNANDEZ**ek urtea bete du urtarilaren 9an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren eta bereziki anaia Inharren partetik



AINARA BURGUETE MIGUELENAK urtarilaren 4an 7 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundiak aitaxo eta amatxoren partetik.



JON PAGOLA LOPEZek urtarilaren 27an 4 urte beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik eta muxu haundi bat!!



Berako **EIDER MOLINERO BARRIETOK** 5 urte beteko ditu urtarilaren 18an. Zorionak! Ondo pasa urtebetetze egunean. Amatxi, amona eta familia.



JOSETXOK eta **NAHIARAK** urteak beteko dituzte urtarilaren 10ean eta otsailaren 4an. Zorionak eta muxu haundi bana Arantzako Ainhoaren partetik.




NAXARA ALEMAN IRISARRIRI urtarilaren 22an bere lehenengo urtebetetzea dela eta muxu haundi bat bere aita, ama eta Lurren partetik. Zorionak tottolinal!



NAXARA ALEMAN IRISARRI. Etxeko tottolinak lehenengo urtea beteko du urtarilaren 22an. Zorionak sorgintxo zure amatxi, izeba-osaba eta Ganixen partetik



Añorgako **NAROA AROZENAK** 5 urte beteko ditu urtarilaren 24an. Zorionak eta muxu pottolo bat zure lehengusu Aialaren partetik.



LOREA BAZTERRIKA LEGAZKUE iturrendarrak 6 urte beteko ditu urtarilaren 26an. Zorionak ama, aita, Ane eta bere familiaren partetik.



LURDES IRIGOIEN ALMANDOZ. Zorionak eta besarkada bat zure amaren partetik 48 urte bete dituzulako.



Arantzako **OLATZ** eta **JOXE** atxalabak urtarilaren 15ean eta 16an 25 eta 52 urte beteko dituzte. Muxu haundi bat zuen urtebetetze egunean amatxiren partetik.



Zorionak **ISMAEL** eta **OSKIA** osaba-lobari zuen urtebetetzean, urtarilaren 22an eta 17an. Muxu haundi bana Narbarte eta Gazteluko familien partetik. Segi beti bezain zintzo!



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerrika S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA



euskara ere urratsez urrats.
te ayudamos en cada paso.



www.ikanet.net



ika euskara kasit

LESAKA 948 637 796



ORDOKI
 altzariak

ERAKUSKETA: Bittiria 26
 SALTOKIA: Plaza Zaharra 27
 Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA



Lur

urtarrilak **19** larunbata

JUSTERINI **J&B** BROOKS

BESTA

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

urtarrilak **26** larunbata

REMEMBER

MOZORROTUTA*
SARRERA
DOHAINIK

BESTA

*60., 70. eta 80. hamarkadak

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

otsailak **2** larunbata

LUR D JOTAK

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

BISITA EZAZU
GURE WEB ORRIA

LURELIZONDO.COM

Laguntzaileak:

Heineken



Baztango Udala

ETORRI BAINO LEHEN, PASA ZAITEZ HERRIKO TABERNETATIK